

Kultura

Patxo Telleria, martxoaren 30ean Durangoko San Agustinen eskainiko duten 'Euskal Musikaren benetako istorioa' obraz. > 11



San Faustoko bizilagun talde batek fabrikak kentzea eskatu du

Urkiaga Torre kaleko etxeetan bizi diren hainbat lagunek plataforma bat sortu dute, inguruan dauden enpresa bik sortzen duten zaratagaz nekatuta daude eta. Diotenez, zarata mailak legezkoak baino altuagoak dira, eta neurriak eskatu dituzte. Fabrikek euren bizimoduan eragiten dutela diote, eta hirigintza plana aldatuta, auzotik ateratzea eskatu dute. > 6

“Hiria berreraikitzeke lanean dabilta Kobanen; arlo guztietan lan asko dago egiteko”



Mustafa Ebdí | Kobaneke ordezkaria > 10



Badator Korrika!

Datorren asteko egunean hasiko da Korrika, Otxandion. Orain arteko 20 edizioetan Durangaldetik abiatuko den lehenengo aldia izango da. Otxandiarrak hainbat lan taldetan eta denbora luzez lanean dabilta Korrikari merezi duen hasiera eskaintzeko. > 2-3



Errepidea moztuz kexa adierazi dute bernerrek

Atzo eguerdian N-634 errepidea ordu erdiz moztu zuten Zornotzako Berna auzoko 25 bat auzotarrek. Aldundia Arriandi-Berna artean obre-

tan dabil. Horren ondorioz, Bernan zeuden autobus geltoki biak kendu dituzte, eta lanak amaitu eta berriak egokitu arte geltoki barik daude auzotarrak. Horrekin eta beste eskakizun batzuekin Aldundira jo dutenean ez dietela irtenbiderik eskaini salatu dute. Bitartean, udalak atzo jakinarazi zuen auzo-taxi zerbitzua zabalduko dietela auzotarrei. Doako zerbitzua izango dute Eubako geltokiraino. > 5

Durangaldea > 8

Kontsumitzaile bulegoan beste behargin bat jarriko dute

Atxondo > 9

Herri galdeketa egitea erabaki du Atxondoko Gure Esku Dagok

Durango > 6

Lehendakaria ere batu da San Antonioko urteurren jaira

Zornotza > 5

Andra Mari ikastolak bere 50. urteurrena ospatuko du

Herririk herri



Korrika antolatzeke lanean dabiltzan lan taldeetako hainbat kide plazako testigu handiaren ondoan.

“Hasieratik Korrikan parte hartzeko gogoa ikusi dugu otxandiarrengan”

Eguenean hasiko da Korrika, Otxandion, eta ekitaldiz betetako asteburua prestatu dute giroa berotzeko

OTXANDIO Joseba Derteano 20. Korrika Otxandion hasiko da, martxoaren 30ean. Euskararen aldeko ekimena Durangaldean hasiko den lehenengo aldia izango da. 1.300 biztanleko herriari erantzukizun handia egokitu zaio aurtan, baina erronkaren arabera erantzuna prestatzen dabiltza. 200 lagunek baino gehiagok antolaketa edo muntaian parte hartuko dute, modu batera edo bestera.

Joseba Irabazal AEK-ko eta Korrika antolatzen diharduen lan talde bateko kidea da, eta otxandiarren erantzunak ez du harritu. “Aurreragoko beste ekimen baten deialdia egin genuenean, kultur etxeko aretoa bete

egin zen. Lehenengo esperientzia nuen, eta hark bai harritu ninduen. Orain, Korrikagaz laguntzeko egindako deialdian ere jende mordo bat da. Eta ez zen batzar informatiboa, baze-

“Korrikagaz laguntzeko egindako deialdian jende mordo bat zen kultur etxean”

kiten lanak banatzeko batzarra zela”. Miren Kanpo ere lan talde bateko kidea da, eta otxandiarren “boluntarismorako joera” azpimarratu du. “Hasieratik

parte hartzeko gogoa ikusi dugu otxandiarrengandik”, esan du.

Korrikagaz lotura berezia Korrikagaz hartu-eman berezia izan du beti Otxandiok. Lehenengo 12 aldietan herritik igaro zen, behin ere hutsik egin barik. 2003ko aldia izan zen Otxandio ibilbidetik kanpora geratu zen lehenengo aldia, eta herriko kaleetatik beren Korrika propioa egitea erabaki zuten, AEKri eta euskarari laguntzeko. “Harrezkero, Otxandiok beti ospatu du Korrika, herritik igaro zein ez”, Kanporen berbetan.

Korrikagaz izan duten harreman horrek hamaika istorio bitxi utzi ditu, eta horietako

hainbat ezagutzeko aukera egongo da bihar. Giroa berotzen joateko, lan talde batek hainbat ekintza antolatu du astebururako, eta ‘Korrika Otxandio’ izeneko ibilbidearen bidez, herriak Korrikagaz izan duen hartu-emanari buruz gehiago jakiteko aukera egongo da zapatuan, 18:30ean. Esaterako, 1985eko laugarren aldia gertatu zen kuriositatea modukoak: gaueko ordu txikietan, Korrika aurreikusitako ordutegitik dezentzate aurreratuta zetorrela eta, antolatzaileak Otxandiora abiatu ziren abisatzera, martxari aurre hartuta. Bertara helduz, aldrak jaikiberria beharrez jai-giroan zebilen koadrila bat

aurkitu zuten. Batzuk urduri eta presa sartu nahian, eta besteak patxadatsuago, jendea laster itzarririko zela esanez. Bitxikeriak, datuak... denetariko kontakizunak izango dira. Herria Korrikaren inguruko kolore eta osagaiz apaintzea da, bihar, 11:00etan hasita, auzolanean egingo duten beste ekimen bat.

Egin eta eragin

Korrikaren inguruan sortu den ilusioa euskararen alde lan egiteko ere baliatu gura dute. Horixe da erabileraren eta sentsibilizazioaren ardura duen taldearen zeregina. “Ez dugu jai hutsa bakarrik izatea gura”, dio lan talde horretako Aitziber Balantzategik. Euskararen kale erabileran eragin gura dute. “Azken urteetan beheradaka handia eta arina eman da”, azaldu du. Oraintsu egindako tailer batean, herritarrek gai honi buruz dituzten iritziak jaso zituzten. Orain aurrera begirako plangintza osatuko dute.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2017ko martxoaren 24a
14. urtea - 670. alea

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua:
Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



“Korrika berezia da 20. aldia delako, eta horren arabera zerbait egin gura nuen”

Alberto Barrondok plazan jarrita dagoen egurrezko testigu handia egin du

OTXANDIO J.D.

Otxandioko plazaren erdian metro bi eta erdi garai den eta 150 kilotik gora dituen egurrezko testigu handi bat dago. Korrika herrian hasiko dela gogorarazten die bertatik igarotzen direnei. Alberto Barrondo Oletan bizi den otxandiarra da artelan horren egilea.

Zelan bururatu zitzaizun egurrezko testigu handi hori egi- tea?

Nik buruan baneukan egurrezko testigu hori egitea. Gero, Korrikaren antolaketarako batzarrak hasi zirenean, batzuk kartoi- zko testigu handi bat egitea zerabilten buruan, eta, orduan, egurrezko bat egiteko ardura hartuko nuela esan nuen nik.

Horrela hasi nintzen testigua egiten.

Hasieratik argi zenituen neurriak?

Bai. Aurtengo Korrika berezia da 20. aldia delako, eta horren arabera zerbait egin gura nuen. Anaia basozaina da, eta bere bitartez lortu nuen enbora. Egurra lantzerako orduan, benetako testiguaren proportzioak mantendu ditut. Hau da, benetakoaren eskala handi bat da plazan dagoena.

Plazaren erdi-erdian dago, mundu guztiak ikusteko moduan.

Bai, jendeak komentatu izan dit. Joan den asteburuan jendea testiguaren ondoan argazkiak ate-

ratzen ikusi izan dut. Bakoitzari euro bat kobratuz gero, soldata- txoa aterako nuela uste dut (ba- rrez). Pozgarria da jendeari gus- tatu zaiola ikustea.

Korrika amaitzean, zer egingo duzu beragaz?

Nik herriarentzat egin dut. Aurkituko diote erabileraren bat, seguru.

Korrikan parte hartuko duzu? Zelan biziko duzu Korrika?

Asteburu honetan hainbat ekitaldi daude, eta muntaketan parte hartuko dut. Bestela, lan egi- ten dudun lantegiko langileon artean kilometro bat hartu du- gu, eta hantxe egongo gara. Korrika hasi baino lehen egongo den ekitaldia ikusi eta segituan



Alberto Barrondori betidanik gustatu izan zaio egurra eta harria lantzea.

gure kilometrora joan beharko dugu testiguari itxarotera.

Egurra lantzen ez zara hasi- berria.

Ez, betidanik izan dudun afi- zioa da. Egurra ez ezik harria

ere lantzen dut. 30 bat urte dara- matzat bata zein bestea lantzen, ahal dudanetan. Etxean bertan ditut artelanetako asko. Oletan dagoen harrizko iturria ere, esa- terako, neuk egin nuen oriajn iurte batzuk.

Musika, antzerkia, dantzak... hasiera eguna animatzeko

Otxandiarrek egun osoko jaia prestatu dute Korrikari hasiera emateko



Sortu zeneko 25. urteurrena ospatzen dabil, aurten, Gozategi taldea.

OTXANDIO J.D.

Korrika martxoaren 30ean, 17:00etan, abiatuko da Otxan- dioko plazatik. Horren aurretik, *Aurrera Korrika* izeneko ikuski- zun koloretsuagaz gozatu ahal- ko da plazan. Korrikaren abes- tiko letra abiapuntu hartuta, musika, antzerkia, dantzak eta zirkua batzen dituen ikuskizu- na osatu dute diziplina anitzeko ‘malabaristek’. Herriko gazte- txoek koreografia bat ere pre- tatu dute eta plaza osoa eurekin batera dantzan jarri gura dute.

Korrika joan ostean ere jai- giroak aurrera jarraituko du, Egonian elektrotxaragaz lehenengo eta Gozategiren erromeriagaz ondoren. Aurten, sortu zeneko 25. urteurrena ospatzen dabil Gozategi.

Gaztetxoak goizean izango dira protagonista. Korrika Txikia egin ostean, Korrika kan- tekin egindako koreografiak erakutsiko dituzte.

EGITARAUA

Martxoak 25

11:00 Herria Korrikako osagaiez jantzi-ko dute.
15:00 Bazkari herrikoia.
16:30 Mihiluze.
18:30 ‘Korrika Otxandion’ ibilbidea herrian zehar.
20:00 Egonian elektrotxaranga.
22:30 Kontzertuak: Kohatu eta Tres41. Gaztetxean

Martxoak 26

12:30 Material salmenta.
13:00 Kale animazioa eta Arbigara pintxoak plazan.
17:00 Umeentzako filma.

Martxoak 30

10:30 Korrika Txikia.
11:15 Korrika kanten koreografiak umekin.
13:00 Kale animazioa.
13:30 Zurezko jolasak.
15:45 ‘Aurrera Korrika’ ikuskizuna.
16:40 Hasiera ekitaldia.
17:00 KORRIKA HASIERA
18:00 Txokolatada.
19:30 Erromeria:Gozategi.

Guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

Metodologia kooperatiboa

Teknologia berrikuntzak

Hezkuntza praktikoa

- **Batxilergoa**
- **Lanbide heziketa**

2. maila

- Beroa sortzeko instalazioak (iturrintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

3. maila

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa
- Ekolizpen prozesuak eta kalitate Elikagaien Industrian
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Aplikazioen Garapena (2. maila)

Eskaintza Portugala

Ote irekiak: Apirilak 1

11:00etan susezpena eta orientazio saioak
13:00 arte instalazioen ikusaldia

Markina-Xemein

94 616 90 02

info@leartik.com

leartik.com

Durangok kereila ipini ahal izateko, informazioa batzen ibili dira Erroman

1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren egileen aurkako kereila apirilean aurkeztea aurreikusi dute

> MEMORIA Markel Onaindia
Gerediaga elkarteko Jon Irزابال Erroman egon da asteon, 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren egileez gehiago jakiteko. Italiako armadaren artxibora bisita egin du, han baitituzte Aviazione Legionariaren dokumentuak. Udalaren tramite juridikoari gehituko dio ikerketa osoa, eta egileen aurkako kereila apirilean aurkeztea aurreikusi dute.

Kereila aurkeztea aho batez erabaki zuten martxoaren 31ko

ekitaldien harira sortutako batzorde berezian. EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Herriaren eskubidea alderdiez gainera, Gerediaga, Durango 1936, Kriskitin, Berbaro, Aranzadi, Argentinako kereilaren euskal plataformak, Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Ongi Etorri Rojava-Kobane elkarteek parte hartu dute.

Aitziber Irigoras alkateak adierazi du memoria berreskuratzea dela udalaren helburua, "ondorengoek zer gertatu zen jakin dezaten". Durango 1936 elkarteko kide Andoni Barreñak



Bonbardaketa oroitzeko batzorde berezian hainbat elkarte parte hartu dute. Joan zen barikua egin zuten aurkezpena.

txalotu egin du udalak kereilaren ardura hartu izana, elkarrekin sustatu eta gero. "Inork ez du barkamenik eskatu, eta bada garaia erantzukizunak eskatzeko", esan du Barreñak.

Jaurlaritzaren ekitaldia
Bonbardaketa oroitzeko ekin-

tzen artean, Jaurlaritzak lehenengo egingo duen ekitaldia da nobedadeetako bat. 19:00etan izango da Andra Marian, eta lehendakaria egongo da.

Hilaren 31ko urtemuga egunean, 12:00etan, Gerra Zibileko biktimak omenduko dituzte hilerrian, eta 20:00etan, bon-

bardaketa hildakoak oroitzeko dituzte Gerediagak eta Kriskitinek landutako ekitaldiagaz. ANBOTOk zuzendari Jone Guenetxeak aurkeztuko du.

Bestalde, Andra Marian instalazio parte-hartzaile bat ipiniko dute 28an, eta argazki erakusketa ere bai 30etik aurrera.

> MEMORIA Maialen Zuazubiskar 1937ko martxoaren 31n, 8:30 inguruan, italiar abiazioak, Durango ez ezik, Elorrio ere bonbardatu zuen. Orain arte Elorrioko bonbardaketaren inguruan ezer gutxi jakin den arren, udalak, herritar talde batek eta Jon Ander Ramos historialariak *Iragana ahaztu gabe, etorkizunera begira* egitaraua antolatu dute.

"Uste dugu etorkizunera begiratzea ezinbestekoa dela, baina ezin gara iraganaz ahaztu. Beraz, Luis Madina elorriarrak duen argazki bildumari eta herriko talde batek hasitako bideari bultzada eman gura diogu", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

"Bonbardaketaren inguruan herrian ezer gutxi egin dela jakinda, herritar batzuk lanketa bat egiten hasi ginen", esan du Jesus Aristegi herritarrak, eta udalaren laguntzari esker egi-

Orain arte ezer gutxi jakin den bonbardaketa gogoan, Elorrioren

Oroimen ekitaldia egingo dute martxoaren 31n, 20:00etan, herriko plazan



Barreña eta Iturriagagaz batera, Joseba Angulo lekukoa eta Iñaki Garaita elkarteko kidea egon ziren aurkezpenean.

tarau oparo bat antolatzea lortu dutela nabarmendu du. Duela 80 urte Elorrioren zein Durangal-

dean bizi zutena gogoratzeko, martxoaren 28an, Jon Ander Ramos EHUko irakasleak *Zeru-*

tik i(z)ua dator... Durangaldea bonbapean hitzaldia emanango du, 19:00etan, Iturri Kultur

Etxean. "Durangaldean garai hartan bizi zutenaren inguruan jardungo gara", jakitera eman du historialariak.

Bestalde, martxoaren 31n, Jon Ander Ramosek *Elorrioko bonbardaketaren ondarrak* bisita gidatua eskainiko du. Ramosek adierazi du martxoaren 31n euskarazko bi bisita eta gaztelaniazko bat egingo direla, eta bisita gidatu hauen helburu nagusia jendeari egun horretan elorriarrek pairatu zutenaren berri ematea dela. Bestalde, bisitara doan jendearen ekarpenak eskertuko dituztela adierazi du Ramosek. "Gertatutakoa denon artean eraiki dezakeguta", gaineratu du historialariak.

Bisita gidatuen ostean, 20:00etan, herriko plazan oroimenerako ekitaldia egingo dutela jakitera eman du Iñaki Larrañaga herritarrak, eta, bertan, omenaldi poetiko-musikal bat egingo dutela, beste hainbat gauzaren artean.

hitz #gomendioak
artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT LAURA ESATEN ZIOTEN Leire Ibarburen (2016)	UME ETA GAZTEENTZAT TXORI HORIA Olga de Dios (2017)	MUSIKA MARGOLARIA Mikej Urdangarín (2017)

Podinara Urreta Jainaga
podologia

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Andramari ikastolak 50. urteurrena ospatuko du datorren astean

Ekitaldi nagusia apirilaren 1ean egingo dute

ZORNOTZA J.Derteano
Andramari ikastola sortu zutela 50 urte joan dira, eta urteurrena ospatzeko egitarau mardula osatu dute datorren asteleheneetik zapatuta. Ekitaldien berri emateko astelehenean egindako jendurreko agerraldian, ikasle ohi esaguratsu askoren babesa izan zuten: Eneko Atxa sukaldaria-rena, Mikel Urdangarin musikariarena eta Miren Larrea antzerkigilearena, besteak beste.

Astelehenean, 17:30ean, Gernikako arbolaren kimua landatuko dute ate nagusiaren alboan. Ondoren, irakasle ohi batzuek oroitzapenak, pasadizoak eta emozioak uztartuko dituen hizketaldia eskainiko

dute liburutegian. Martxoaren 28an, 19:00etan, Ainize Sarrionandia EHuko irakasle eta psikologoak hitzaldia eskainiko du Zelaieta Zentroan. Bihara-

Astelehenean Gernikako arbolaren kimua landatuko dute ikastolako ate nagusiaren ondoan

munean, eguaztenean, Zelaieta pilotalekuak adin guztietako hainbat pilota partidu hartuko ditu 18:30ean, Iñaki Iza eta Oinatx Bengoetxea pilotari profesionalak bertan direla.



Urtemugari babesa eskaini dioten askotariko ikasle ohi esaguratsuak gaur egungo ikasle gazteekin.

Eguenean, hilaren 30ean, '50 urte kantu kale' izeneko kalejirak zeharkatuko ditu herriko kaleak. 19:00etan, Kalbario plaza abiapuntu delarik, txistulari eta trikitilarien laguntza izango dute abesti herrikoiak kantatu gura dituzten guztiak.

Barikuan, hilaren 31n, Ikastola izango da jaiaren erdigunea,

eta bertako ikasleak protagonistak nagusiak.

Kalejira eta bazkaria

Eta apirilaren 1ean, zapatuan, izango da azken jaia, egun nagusia, 12:00etan herriko plazan hasita, herri kirolen erakustaldia tarteko. 12:30ean kalejira bat abiatuko da bertatik. 13:30ean

pregoia irakurri eta txupinazoa jaurtiko dute udaletxeko bal-koitik. Ondoren, jaia Larreako kiroldegira lekualdatuko dute, bertan emango baitute 500 lagunentzako bazkari erraldoia. Bazkarian bi abesbatzaz, bertolariez eta azken erromeriaz gozatzeko aukera izango dute bertaratuek.

Autobus geltokirik ez, eta protesta egin dute Bernan

N-634 errepidea ordu erdiz moztu zuten atzo



Atzoko protesta ekitaldiko une bat.

ZORNOTZA J.D.
Bernako 25 bat auzotarrek N-634 errepidea ordu erdiz moztu zuten atzo eguerdian. Inguru hartan, Arriandi-Berna auzotarako sarbideak berrantolatzeak lanak egiten dabil Bizkaiko Foru Aldundia eta, horren ondorioz, lanek irauten duten bitartean, autobus geltokirik barik daude bernarrak obrak hasi zirenetik. Autobusa Euban eta Arriandin gertzen da gertuen eta, autorik ez duenak, oinez joan behar du Bernara. Gainera, tarte hori oinez egitea "arriskutsua" dela adierazi du Bernako Gontzal Erdoiza auzotarrak, ez dagoelako espaloirik.

Era berean, lanak amaitzean, ezingo da autoz zuzenean sartu auzora Durango-Zornotza norabidean; hau da, ezingo da bidea gurutzatu. Hori ahalbidetzeko,

hirugarren erretegi bat egiteko tokirik ez dagoela esan diete Aldunditik. Auzokideek diotenez, Euban hiru erretegi daude Bernan baino espazio txikiagoan, beraz, egingarria dela uste dute. Irtenbide bila Aldundirajo dute. "Aintzat hartu ezgaituzten sentipena dugu", adierazi dute.

Auzo-taxia Eubara doan

Atzo bertan Zornotzako Udalak jakinarazi zuenez, udalak eta Aldundiak auzo-taxi zerbitzua handitzea erabaki dute Berna eta Bernabeiti auzoko egoiliarrentzat. Horrela, auzo horretako bizilagunek Eubako geralekuraino taxia doan erabilita joateko aukera izango dute. Zerbitzuak doakoa izaten jarraituko du geralekuak berriro martxan jarri arte. Ekain inguruan izango dela aurreikusi dute.

DIABETESA DUTEN PAZIENTEEK ARRETA BEREZIA BEHAR DUTE



IGOTZ ARANBARRI
Familia medikua eta diabetesean aditua

Diabetesa duten pertsona eta familiei laguntzeko lehen zerbitzua da Durangaldean. Durangoko Ezkurdi Osasun Zentroan dago, eta Igotz Aranbarri familia medikuaren eta diabetes adituaren eskutik ipini dute martxan zerbitzua. Aitzindaria da eskualdean.

Nondik dator diabetesa?

Gaur egungo gizartean, elikadura desegokiak, kirol gutxi egiteak eta gure eguneroko ohitura eta ezaugarri batzuen eragin zuzenak gaixotasun kronikoen hazkundera ekarri dute. Horietariko bat diabetesa da. Diabetes mota ezberdinak daude eta oinarri genetikoak ere zerikusia du patologia honen agertze eta garatze prozesuan. Gaixotasuna dutenen zenbatekoa asko hazi da azken urteotan, eta prebisioren arabera, askoz gehiago haziko da. Ez da erraza diabetesagaz elkarbizitzea, ez pazientearentzat ez bere familia eta gertukoentzat; hala ere, minik eragiten ez duenez, ez diogu duen garrantzia ematen.

Zelan egin behar diogu aurre?

Hain justu ere, ezjakintasuna da saihestu behar duguna, hori delako egunez egun diabe-

tesagaz bizi ahal izateko armarik indartsuena. Zein elikadurari jarraitu; zein kirol egin eta noiz eta nola; zelan jokatu diabetesa izan eta beste gaixotasun akutu zein kronikoak gehitzen direnean; botika ugarien erabilera eta jarraipena...

Diabetesa dutenei eta euren ingurukoei laguntzeko nobedade bat dakarzu, ezta?

Aurrez aipatutako arrazoiengatik eta diabetesa duten pazienteek arretea berezia behar dutela kontuan harturik, gure eskualdean eskaintzen ez den zerbitzu bat abian dela aurkeztu gura dugu. Diabetesa duen pazienteari eta bere familiari zuzendua.

Zertan oinarrituko da zerbitzua?

Gaixotasuna kontrolpean mantendu eta ekar ditzakeen konplikazioak ekiditen laguntzeko izango da, eta baita gaixoaldi akutuak gehitzen zaizkienean laguntza eskaintzeko ere. Gertukoa, itxaron zerrendarik gabekoa, arretea indibiduala zein talde lana jorratuko dituen. Elikadura eta kirola egoki lantzen arituko den zerbitzua, eta arlo honetan pazienteak dituen zalantza, ardura, arazo zein buruhauste guztiak konpontzeko eta aurrera egiten laguntzeko egongo dena. Diabetesak ekar ditzakeen arazo eta konplikazio guztiak saihesteko eta bizi-kalitate oparoa izateko laguntza eskainiko duen zerbitzua. Diabetesaren bidean, pazientearen lagun izateko eratu dena.

Publirreportajea

P.S.E.: 40/17

EZKURDI OSASUN ZENTROA

DIABETESA DAUKATEN PERTSONENTZAKO ARRETA ETA LAGUNTZA ZERBITZUA

Igotz Aranbarri.
Familia medikua eta diabetesean aditua.

ezkurdi
osasun zentroa - centro médico

Askatasun Etorbidea 23,
DURANGO
Tel.: 946 81 81 81

“San Faustoko zonalde hau etxez bete behar dute, eta fabrikak hemen utziko dituzte?”

Fabrika biren zarategaz nekatuta daude Urkiaga Torreko zenbait bizilagun, eta plataforma sortu dute



Ortiz eta Castilla, atzean euren etxeak eta fabrika bat dituztela.

DURANGO M. Onaindia
“Lehen ez nintzen hain umore txarrez egoten”, aitortu du Lourdes Ortiz San Faustoko bizilagunak. Montorreta alboko Urkiaga Torre kalean etxea duten hainbat lagun nekatuta daude alboko fabrika bik sortzen

duten zarategaz, eta plataforma bat sortu dute. Ohartarazi dute legezko zarata maila pasatzen dutela, udalak egindako azterketa bat oinarri lez hartuta. Sakonean, hala ere, etxeen eta fabriken arteko elkarbizitza arazoa dago Ana Castillaren ustez, eta

fabrikak gero eta gehiago hazten dabilen auzotik kentzea eskatu du. “San Faustoko zonalde hau etxez bete behar dute, eta fabrikak hemen utziko dituzte?”.

Plataformakoen esanetan, udalak 2015ean egin zuen zaraten lehen neurketa, eta 2016ko

azaroan bigarrena, enpresei neurriak hartzea eskatu eta gero. “Neurriak ez dira nahikoa izan, eta zarata mailak igo egin dira”, esan du Castillak. Bere iritziz, neurketak ere ez ziren ondo egin. “Dezibelioak neurtzera etorri zirenean, ez zituzten makinak martxan ipini. Zelako isiltasuna zegoen!”, kritikatu du.

“Gaez, ezin loak hartu”

Castillaren eta Ortizen iritziz, azken urteetan handitu egin da zaraten arazoa. 24 orduko ekoizpenaz gain, orain asteburuetan ere lan egiten dute. Euren arabera, gaueko zaraten eraginez loak hartzeko arazoak izaten dituzte. “Gau askotan ezin izaten dut atsedean hartu. Gainera, lo egitea lortu arren, deskantsatzen al da horrela?”, adierazi du Ortizek. Enpresek deskargak egiteko orduak ez dituztela errespetatzen ere salatu dute.

Auzokideak udalagaz batzartu dira, eta beste ikerketa bat egiteko asmoaren berri eman die. ANBOTOn galderei eran-

tzunda, udalak azaldu du zaratak murrizteko neurriak eta proposamenak aztertzen jarraitzen duela. “Arazoaren aurrean, udalaren jarrera eta borondatea beti maximoak izan dira. Durango bizitzeko leku egokiago bat izateko lanean dihardugu”, esan dute arduradunek.

“100.000 euro gastatuta”

Aeronautikan aritzen den CMI eta estanpazioko Hermanos Oñate dira bizilagunek aipatzen dituzten enpresak. CMI enpresako zuzendariak adierazi du

“Neurriak ez dira nahikoa izan, eta zarata mailak igo egin dira”, esan du Castillak.

egoera hobetzeko borondatea eduki dutela. “Neurriak hartzeko, 100.000 euro baino gehiago gastatu ditugu. Gu ere herrikoak gara, eta auzokideak pozik egon daitezene gura duten lehenengoak gara”, esan du. Hala ere, bere ustez, bizilagun guztiek ez dute iritzi berbera.

Egoera konpondu ezean, mobilizazioak egitea hausnartzen dabilta plataformakoak.

Lehendakaria ere batu da San Antonioko 150. urtemugako jaira

Durango San Antonio ikastetxeak 150 urte bete ditu aurten, eta eguaztenean burutu zuten ekitaldi nagusia; bihar ikasle ohien bazkaria dute

DURANGO M.O.
San Antonio ikastetxeak 150 urte bete ditu aurten, eta urtemuga berezi hori ospatzen dabilta ekintza sorta batez. Eguaztenean burutu zuten ekitaldi nagusia, eta Iñigo Urkullu lehendakaria ere batu zen jaira. Ikastetxeko haur bik aurrerakua egin zioten ongietorri lez, eta beste hainbat ikaslek abesti

bat kantatu zuten, urtemugarako bat sortu dutena.

Zorionak eta eskerrak eman zizkien Urkulluk San Antonioko irakasle kooperatiba osatzen duten partaideei. “150 urteren ondoren, asko ikasi eta irakatsi duzue, eredu bat izan zarete eta bazarete”, aitortu zien. Horrez gainera, “kalitatezko hezkuntza etorkizun hobe baterako oina-

ria” dela nabarmendu zuen agintariak.

Ikastetxeko ikasle izandako Aitziber Irigoras alkateak ere parte hartu zuen ekitaldian, eta Ana Sagastizabal zuzendariak proiektuaren berri eman zuen.

Ekitaldiek ekainera arte iraungo dute. Ikasle ohien bazkaria egingo dute bihar, eta 30ean berbaldi bat, 18:00etan.



Lehendakaria eta alkatea, ikastetxeko ikasle eta arduradunekin batera.

ERA prozesu zabala hasiko du EH Bilduk

“Herri-proiektu” bat landu gura du koalizioak



EH Bilduko hainbat kide, joan zen zapatuan egindako aurkezpenean.

DURANGO J.G.

EH Bilduk ERA prozesu parte-hartzailea aurkeztu du, eta “herri-proiektu” bat landu gura du horren bidez. “Durango herri zahar bat izanagatik ere, ez du lortu herri-proiektu bat garatzea, herri-proiektu bat sortzea”, azaldu du koalizioak. Marisol Juaristik eta Eloi Landiak egin zuten berba aurkezpen publikoan.

Koalizioko kideek azaldu dutenez, prozesua “herritarren

parte hartzean oinarrituko da, eta hauek izango dute azken hitza eta erabakia hartzeko ahalmena”.

Durango guztiei dei egin diete “birdefinizio prozesu honetan” parte hartzeko. “Utz ditzagun atzean urrunduko gintuzten muga horiek”. eraprozesua.wordpress.com webgunean eman ahal da izena, eta bertan topatu ahal dira oinarrituko txostena eta bestelako informazioa ere.

64 enpresa berri sortu dira 2016an Behargintzaren laguntasunagaz

Zerbitzu honek enpresa berriak sortzeko aholkularitza eta prestakuntza eskaini zizkien, iaz, 123 pertsonari

> DURANGALDEA

Lan munduan norberak bere lekua aurkitzea ez da erraza izaten. Horregatik, batzuetan, egitasmo bat buruan duenak ideiatik ekintzara pasatzea erabakitzen du. Ekintzaile horien bidea ez da erraza izaten, baina. Burokrazia-lan eta plangintza ugari egin behar izaten dira proiektua martxan jarri aurretik. Bide neketsua dela jakitun, Durangaldeko Behargintzak

ekintzaile hauei aholkularitza eta prestakuntza eskaintzen dizkie. 2016an, 123 pertsonari aholkularitza zerbitzua eskaini zien Behargintzak. Zerbitzu honi esker, 64 enpresa berri sortu zituzten. Gehienak autonomoak dira, eta pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen dituzte. 25 enpresa Durangon sortu dira, Abadiñon 14, Elorrión 3, Iurretan 5, Izurtzan 1, Mañarian 1, Zaldibarren 1 eta beste herrietan 14.

DURANGALDEKO BEHARGINTZA

Laubideta kalea, 6 DURANGO
Tel.: 946 23 25 22
www.mdurango.org



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango



Urshena Goiti Soto
SUOMI

Zertan diharduzue Suomin?

Eraikuntzarako materialak saldu, eta erreforma integralak ere egiten ditugu. Horrez gainera, egurrezko etxeak ere egiten ditugu.

Proiektu hau martxan jarri zenutene-tik, zein da aurrera egiteko jaso du-zuen bultzadarik handiena?

Egitasmoaren hasieran gure buruari ezarri genizkion helburuak betetzeak

eman digu poztasunik handiena, zalan-tzarik barik.

Ekintzaileentzat, zeren hutsunea igarri duzu?

Bide honetan zailena finantziarioa bilatzea izan da. Baina, informazioa bilatzea ere ez da erraza izaten. Ildo horretatik, Durangaldeko Behargintzak laguntza zerbitzu handia eman digu. Beraiek barik, zailagoa izango litzateke.

Badago zabalkunderako aukerarik?

Horixe da ideia. Material gehiago saltzea eta zerbitzu gehiago eskaintzea da Suomik etorkizunerako duen erronka.



Yolanda Huerga Santos
ILLARY

Zein zerbitzu eskaintzen du Illaryk?

Hainbat profesionalen osatutako diziplina anitzeko zentroa da. Helburua da errehabilitazioa eta ongizatea alde fisiko, psikiko eta emozionaletik lortzea. Hainbat zerbitzu eskaintzen dira: muskoterapia, fisioterapia, osteopatia, logopedia, psikologia, dietetika, psikomotrizitatea ingelesez, zoru pelbikoaren lanketa, hipopresiboak, pilates, yoga, Tai-chi eta ongizaterako tailerrak.

Zein da lortu duzun helburu nagusia?

Alde batetik, hainbeste ahalegin egin eta gero, enpresa martxan dagoela eta hazten dabilela ikusteak poz handia ematen dit. Era berean, terapeuta moduan, sesioen ostean pazienteak eta beraien familiak asebeteta ikustea pozgarria da. Nire parte-hartzeak beraien bizi-kalitatean zelan eragiten duen ikustea, alegia.

Bide honetan, zeren falta igarri duzu?

Enpresaren sorreran eta kudeaketan prestakuntza zabaltea interesgarria litzateke. Burokrazia handia egin beharra dago. Behargintzari laguntasuna eskertzen diot, ekintzailetasun bidea erraztu didalako.



Asier Perugorria Garcia eta Gaizka Larringan Iñurategi
AHUNKI STUDIO

Ahunkik zein zerbitzu eskaintzen du?

Bideoak, argazkiak, web orrialdeak, marketing zerbitzua eta prestakuntza eskaintzen ditugu.

Zein izan da lorpenik handiena?

Lorpenik handiena gure enpresa propioa sortzea izan da.

Zein izan da orain arteko oztoporik handiena?

Kostu gehiegi daude norberak bere kabuz proiektu bat martxan jartzeko.

Epe ertainean, baduzue hazkunderako aukerarik?

Bai, eta baditugu etorkizun hurbil baterako proiektuak.

Zeren falta igarri duzu negozioa martxan jartzekoan?

Negozio bat garatu ahal izateko, informazio eta baliabide falta dago. Teknologien arloko enpresa bat garenez, Yuzz deitzen den laguntza bat jaso dugu, eta ideia errealtate bihurtzen lagundu digute. Baina, negozio bat martxan jarri aurretik, lan handia egin beharra dago.



Eneritz Echaniz Yuguero
ETXELAN

Zein da zure enpresaren aktibitatea? Noiztik dago martxan?

Higiezin kudeaketan dihardut. 2016an ekin nion proiektuari, nire kabuz. Etxe agentzia kudeatzen zuen enpresak zarratu egin zuen. Beraz, al-daketa batzuk eginda, aktibitatea nire gain hartzea erabaki nuen.

Lorpenik handiena, zein izan da? Poz handiena 2017ko urtarrilean izan

dut. Agenda topera, eta hainbat operazio itxita. Azken urteetan hori pentsaezina zen.

Hilabeteotan zein oztopo gairiditu behar izan duzu?

Oztoporik handiena egoera ekonomikoa izan da. Hala ere, poztasun pixka bat sumatzen hasi gara. Finantza erakundeak hipotekak ematen hasi dira, eta jendea erostera animatzen ari da.

Behargintzan, zelako esperientzia izan duzu?

Lagun baten bidez Behargintzara jo nuen, eta pertsona oso profesionalak aurkitu ditut bertan. Jarraitu beharreko pausoak azaldu dizkidate.



Bittor Kapelastegi Miguel
HAMAICA IZPI

Zertan diharduzue Hamaika Izpin?

Elorrión dagoen zalditegia da. Ibilbideak, ikastaroak... egiten ditugu. 2016ko irailean hasi ginen, eta badugu jende finkoa; baita noizbehinka etor-tzen dena ere.

Zein da izan duzun lorpenik handiena?

Asko maite dudan zerbaitetan lan egitea lorpen handia da niretzat. Jendeagaz egotea eta horiei zaldiekin komu-

nikatzen irakastea nire proiektuaren motorea da.

Zailtasunik izan duzu?

Proiektua martxan jartzea konplexua da. Horretan, Behargintzatik laguntza handia jaso nuen. Aholkularitza eta trebakuntza handia jaso nuen. Prestakuntza enpresarialik ez duen batentzat, laguntza hau barik zaila da aurrera egitea. Hala ere, egunerokotasunean arazoak sortzen hasten dira, eta eskertzekoa da laguntza hori.

Zeren falta igarri duzu?

Laguntza ekonomikoarena. Zentroak inbertsio handia eskatzen du. Laguntza gehiago egin beharko lirateke.



Uxuri Duñabeitia Amantegi
UXURI

Zein zerbitzu eskaintzen duzu?

Arropa konponketa, transformazio eta moda diseinuaren arloan diharduen espazio bat da. 1994tik ondo funtzionatzen zuen, baina jabeak osasun arazo bat izan zuen eta ardura hartzea erabaki nuen.

Zein da lorpenik handiena?

Helburuak betetzen noa. Gainera, pozgarria da jendearen harrera ona eta

fideltasuna egunez egun handitzen doala ikustea

Badago hazteko aukerarik?

Bai, jakina.

Zeren hutsunea igarri duzu ekintzaile batek negozio bat martxan jartzen duenean?

Zerbitzu publikoen inplikazioa handiagoa izan beharko litzateke. Nire kasuan, Behargintzak eskaintzen dituen informazio eta prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko zortea izan dut. Aholkularitza eta arreta bikaina jaso dut. Ematen du ekintzaileei eskaintzen zaizkien diru-laguntza batzuk nahieran ematen dituztela.

Kontsumitzaileen Bulegoan beste behargin bat ipiniko dute laster

Zoru klausulen erreklamazioen eraginez, gainezka egin du zerbitzuak



Amankomunazgoak zuzentzen duen zerbitzuan hilean 100 kexa inguru lantzen zituzten, eta orain 200.

DURANGALDEA M. Onaindia Bankuen zoru klausulen inguruko erreklamazioen eraginez, Kontsumitzaileen Bulegoak gainezka egin du. Orain arte hilean 100 kexa lantzen bazituzten ere, orain 200era heltzen dira, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentearen arabera. Horregatik, beste langile bat kontratatatzeko beharra ikusi,

eta apiril amaierarako lanean egotea espero dute. Hitzorduak irailerako ematen ari dira, eta herritar asko kexatu egin dira. Hala ere, Lopezek esan du hitzorduak aurreratzen hasi gura dutela, eta 2019ra arte dagoela erreklamatzeko aukera.

EAJren kritika Bestalde, EAJk ez du begi onez

ikusi instituzioko aholkularitza juridikoa kanpora atera izana. Diru partida 5.000 eurotik 18.000ra “benetako beharren txosten bat burutu gabe” igotzea kritikatu dute. Lopezek erantzun du kontratatatzeko beharra dutela, eta EAJk aurreko legealdietan ere egin izan duela. 18.000 eurokoa gehienezko muga bat dela azaldu du.

Arrazakeriaren kontrako eguneko mobilizazioa

Kontzentrazioa egin zuten martxoaren 21ean

ZALDIBAR I.E.

Bi urtetan Zaldibarko Jendeak kultur arteko jaialdia antolatu duen taldeak deituta, arrazakeriaren kontrako kontzentrazioa egin zuten, martitzenean, udaltxeko plazan. Lehenengo aldia izan da martxoaren 21eko Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko Eguna-gaz bat egin dutena Zaldibarren, eta 30 lagun inguru batu dira kontzentrazioan. Martitzen ho-

netako Arrazakeriaren Kontra-kontrako Nazioarteko Eguna begira, Zaldibarko Jendeak taldeak aurkezturiko mozio bat onartu zuen udalak, joan zen hilean. Idatzi hori onartuta, “arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra lan egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi” zuen Zaldibarko Udalak, eta baita aniztasunaren errespetuan oinarrituriko politikak oinarritzat hartuta jardutekoa ere.



Zaldibarko Jendeak taldeak deiturikoa izan zen mobilizazioa.

Wiside Telecomeko “prekarietatea” salatu du ELA sindikatuak

Gaur, 13:30ean, elkarretaratzea egingo dute

ELORRIO M.Zuazubiskar ELAk Wiside Telecom enpresako langileen egoera salatu zuen joan den astean. Sindikatuak jakitera eman zuenez, Elorrioko enpresa honek Eroskirentzat lan egiten du, azpikontrata moduan.

Prentsa oharrean azaldu zuten, Wiside Telecom enpresako langilerik gehienek 900 euro-

tik beherako irabaziak dituzte lanaldi osoan, eta enpresak “ez ikusiarena” egiten omen du. Gainera, langileei, gehien bat gazte eta emakumeei, baldintza “prekarioak” eskaintzen dizkietela jakitera eman zuten.

Hori guztia amaitu eta egoera salatzeko asmoz, gaur bigarren kontzentrazioa egingo dute Eroskiko zentralaren aurrean.



Aurreko astean egindako elkarretaratzea.

Santa Agedan batutakoa errefuxiatuei laguntzeko

Mendibil abesbatzak dohaintzan emango du dirua

MALLABIA J.D.

Mallabiko Mendibil abesbatzak Santa Ageda koplak abestu zituen, baserriz baserri, joan zen otsailaren 4an. Egun hartan batutako dirua elkar-tearentzat gorde beharrean, Intxaurren Gastronomía Elkarteak daukan Zaporeak proiektura bideratuko dutela jakinarazi dute asteon.

Zaporeak proiektuak beharrean dauden pertsonen laguntzea du helburu, gastronomiatik abiatuta. Esaterako, gerratik ihesi Greziara hertzen diren errefuxiatuei laguntzeko, Zapore Solidarioak izeneko proiektua dute. Grezian dauden Gobernu Kanpoko Erakundeekin elkarlanean aritzen dira.

150.000 euro bideratuko dira elkarleen jarduna laguntzeko

IURRETA A. Basauri.

Herriko 30 elkartegaz lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu Iurretako Udalak. Hartara, elkar-teei 150.000 euro bideratzeko konpromisoa hartu du udalak. Diru horregaz, batez ere, elkarleen eguneroko jardunari eta horren jarraipenari lagundu gura diete udal arduradunek. Kultur eta kirol elkarteak eta gizarte arloan dihardutenak dira lankidetzaren hitzarmena sinatu dutenak.

Hitzarmenak urteko lehenengo hiruhilekoan sinatuko dira. Hau da, martxoaren 31 baino lehen. Horrela, eskaera egiten duten elkarteek ahalik eta arinen jasoko dute 2017. urterako esleitutako aurrekontuko diru-atata, eta jarduerak garatu ahal izango dituzte. Horrela azaldu dute udal arduradunek, ohar baten bitartez. Ondoren, eta urtea amaitu baino lehen, justifikatu eta likidatu egingo dira. Udalak, halaber, elkarleen esku jarriko ditu helburuak lortzeko behar dituzten azpiegitura eta baliabide material guztiak.

Asiako liztorraren gaineko tailerra, Hontza Museoan

MAÑARIA J.D.

Udaberriagaz batera, Asiako liztorraren presentzia ugaritu egiten da, eta, bere erruz, handitu egiten da erleak desagertzeko arriskua. Intsektu inbaditzaile hau hobeto ezagutzeko, Hontza Museoak liztor asiaticoaren inguruko tailerra antolatuko du martxoaren 30ean, 18:00etan, Museoak Mañarian duen egoi-

tzan bertan. Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 29ra arte, info@hontzamusoea.eus helbidean edo 94 621 65 55 telefono zenbakira deituta. Plazak mugatuak dira. Emanaldi informatiboagaz batera, bideoak eta irudiak ikusgai izango dira, eta, ostean, liztorrentzako trapa eraginkorra egiteko aukera eskainiko dute.

Herri galdeketa egitea erabaki du Atxondoko Gure Esku Dagok

Ez dakite Durangaldeko gainontzeko taldeekin batera egingo duten galdeketa



Atxondoko Gure Esku Dagoko kideak martitzenean egindako batzarrean.

ATXONDO M. Zuazubiskar Erlojuaren aurka, lanean buru-belarri dabilta hogeitaz bat lagun Atxondon. Azken asteetan, taldea sortu eta galdeketa egin ahal izateko lanean murgilduta daude Atxondoko Gure Esku Dagoko kideak. “Orain hamar urte, Atxondok beste galdeketa bat bizi izan zuen. Orduan, AHTaren inguruan galdetu zen. Urtemuga hori eta Durangaldean dagoen olatu hau aprobeztatuz, galdeketa egitea erabaki dugu”, adierazi dute Atxondoko Gure Esku Dagoko kideak.

“Durangaldeko gainontzeko taldeei esker erabaki dugu

galdeketa egitea. Abadiñoko eta Zaldibarko taldeen laguntza izugarria izan da, asko lagundu digute eta pauso hauek guztiak ematen”, aitortu dute herriko gaztetxean batu diren kideak.

Oraindik galdeketa noiz egingo duten ez dakiten arren, Durangaldeko beste taldeekin batera maiatzaren 7an egitea ez dutela baztertzen jakitera eman dute. “Protokolo bati jarraitzen gabilta, eta, beraz, data batzuk ez daude gure esku. Hala ere, lanean buru-belarri gabilta galdeketa hori egin ahal izateko”, gaineratu dute. Galdeketa data jarrita

ez duten arren, taldearentzat egun garrantzitsua izango den aurkezpen ekitaldiaren data ipinita dute. Taldea ezagutzera emateko asmoz, martxoaren 31n, arratsaldean, aurkezpen jaia egingo dute herrian.

Egitarau oparoa, Zornotzan Zornotzan, berriz, erabakitze eskubidearen aldeko eguna antolatu dute martxoaren 25erako. Gure Esku Dagoko kideak egun osoko egitaraua antolatu dute. Esaterako, mendi martxa, Markeliñeren eskutik antzerkia, herriko kirolarien arteko desafioa eta bertsolariak egongo dira.

Merkatariak, sare sozialei buruzko ikastaroan

ABADIÑO I.E.

Sare sozialen inguruko trebakuntza ikastaro batean parte hartzeko aukera eskainiko die Abadiñoko Udalak herriko merkatariei. Martxoaren 28an eta 30ean eta apirilaren 4an eta 6an, 14:00etatik 16:00etara, elkartuko dira ikastaroan parte hartzeko izena eman duten merkataria abadiñarrak. Besteak beste, sare sozialen plataforma bakoitzak eskaintzen dituen aukerak aztertuko dituzte ikastaroan, eta baita marketing estrategiak ere.

Diru-laguntzak Berrizen euskara sustatzeagatik

BERRIZ M.Z.

Berrizko Udalak, herrian euskara sustatzeko asmoz, diru-laguntzak emango dizkie herri-tarren euskarazko ekoizpenei, eta baita herriko komertzioetako errotulu eta webguneak euskaraz jartzen dituztenei ere. Horrez gain, ikasturtean zehar euskara ikasteagatik ere laguntzak emango dituzte. Azken bilkuran jakitera eman zutenenez, Euskara Sailak bideratzen dituen diru-laguntzetarako 13.500 euro emango dituzte.

Baserrietan bizilekuak egiteko araudia lantzen

IZURTZA Joseba Derteano

1950a baino lehenagoko baserrien inventarioa egin du udalak. Izan ere, baserriak zatitu eta bizileku berriak egiteko eskaera bat baino gehiago jaso izan dute. Udalak ez du egoera horien aurreko araudirik, eta hori lantzeko prozeduraren lehenengo urratsa baserrien inventarioa egitea da. Orain, Izurtzako baserrien erradiografia eskuarteetan dutela, bizileku berriak egiteko araudi multzoa jasoko duen txostena prestatzen ari dira.

Landare Azokan kontsigna ipiniko dute, lehenengoz

GARAI M.O.

Apirilaren 23an egingo da aurten Garaiko Landare eta Lorezaintza Azoka, eta antolatzaileak prestaketekin buru-belarri dabilta. Iragarri dute erositateko landareak gordetzeko kontsigna bat ipiniko dutela lehenengoz, bisitariak erosketan egin ostean goiza eroso pasa dezaten, landareak aldean edukirik barik. Urkiola Landa Garaipena, udala eta Trumoitte ari dira azoka prestatzen, nagusien elkartearan laguntzagaz.

DURANGALDEA ASTEON

Arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako astea

DURANGO > Arraza-diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna izan da martxoaren 21a, eta data horren harira, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako astea antolatu dute, Durangon. Apirilaren 7ra arte, askotariko ekimenak izango dira: erakusketak, film emanaldiak eta berbaldiak, kasurako. Aurten, “klima aldaketa eta migrazioak” da udalak antolaturiko programazioaren gaia.

Argibideak emango dituzte, herri bideen inventarioaz

MAÑARIA > Azken udalbatzarrean, herri bideen inventarioari hasierako onarpena eman zion udalak, eta alegazioak aurkezteko epea zabalik dago, orain. Apirilaren erdira arte egin ahalko dira alegazioak. Martxoaren 29an, plana osatu duten teknikarien argibideak entzuteko aukera izango dute hala gura duten herritarrek. Horretarako, aurretik hitzordua hartu beharra dago, udaletxera deituta.

Gaixo dauden euskal presoek eskubideen defentsan

ABADIÑO > Abadiñoko Sarek deituta, gaixo dauden euskal presoek eskubideen aldeko kontzentrazioa burutuko dute, bihar, 12:30ean, Matienako jubilatuen etxearen aurrean. Mobilizazio horren ostean, *Aske eta bizirik* lemagaz, 17:00etan Baionan abiatuko duten manifestaziora joateko Abadiñoko Sarek antolatu duen autobusa aterako da Zelaietatik (12:55ean) eta Traña-Matienatik (13:00etan).

Etorkizunera begira, iragana ahaztu gabe

“Hori hantxe dau, gaur be badakitt non dauen nik hori, han eskabau ezkeron han agertuko da hori... hantxe dau enterrauta, Santalutziako txabolostien...”. Gerra zibila bizi izan duen elorriarrenak dira hitzok, ez nireak. Urrun geratzen zaizkigu telebistan ematen dituzten gerraren irudi gogor eta anker horiek. Hala ere, Elorrioren -bai, Elorrioren- bere krudeltasun osoan ezagutu zuten gure arbasoek. Urteak aurrera joan ahala, geroz eta gutxiago dira garai horiek gogorarazteko aukera dutenak; zerua ‘su kolorez’ ikusi zutenak. Erreka kalea hankaz gora, herri inguruko erre-

bala suz beteta, izua elizako lur-azpiko tuneletan, errepresioa, fusilaketak eta abar luze bat bere gordintasun osoan bizi zuten.

‘Iragana ahaztu gabe, etorkizunera begiratzuz’ da aukeratu dugun leloa bonbardaketa krudel horren 80. urteurrena oroitzeko. Beraiegatik egiten dugu, guregatik eta etorriko direnengatik. Inoiz ez ahazteko gure amamek eta aititek bizi izan zutena.

‘Santalutziako txabolostien’ dagoen hari errespetua zor diogu. Hari, hildakoei eta gerra bizi izan duten guztiei, gure ilobak izango direnei... Askok maite dudan pertsona batek beti gogorarazten dit ‘etorkizunera begiratzeko, nondik gatozen jakitea ere beharrezkoa daukagula’. Ni ere horretan nago.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Mustafa Ebdí Habach | Kobane hiri kurduaren ordezkaria | Kobane, 1949

“Kobaneren %80 suntsitu zuten, Durango edo Gernikagaz egin zuten moduan”

Durango eta Kobane hiri kurdua senidetu egingo dira gaur; ekitaldian parte hartuko du Mustafa Ebdík

> BERBAZ Aitziber Basauri

Durango, Kobane hiri kurdua eta Bartzelona senidetu egingo dira gaur. Bonbardatutako hiriak dira hirurak. Durango bonbardatu zutela 80 urte beteko dira aurten. Kobanek, berriz, Daex-en (El Estatu Islamikoa, arabierazko akronimoan) eraso bortitza jasan zuen 2014ko urrian. Lau hilabete iraun zuen setioak. Milizia kurduak setio hori hautsi eta Daex kanporatu zuen hiritik. Kobaneko ordezkari lez, Durangon egongo da Mustafa Ebdí. Herri kurduaz eta bizi duten egoeraz jardun dugu beragaz. Elorrio, Otxandio eta Gernikako herriek ere babesa erakutsi diote ekimenari.

Kobane berreraikitzen laguntzeko eta hango egoeraz informatzeko konpromisoa hartu du Durangok senidetzeagaz? Bai. Kobane ezagutaraztea Durangon, Gernikan eta mundu osoan. Kobane hiria bonbardatu zuten, eta guztiz txikitu. Hirriaren %80 suntsitu zuten, Durango edo Gernikagaz egin zuten moduan. Historia gogoratu dadin, gertatutako guztia gogoratu dadin, gure artean senidetu behar dugu. Gaur egun, Kobanek denen elkartasuna behar du, eta, batez ere, herriena; Kobanek sufritutakoa sufritu duten herriena. Badakitelako zer den suntsipena, gerra bizitzea, bizirik dirauen gizon-emakumeen drama. Oso garrantzitsua da hau guretzat, munduak ikusi dezan zer gertatu den Kobanen.

Emakume kurduen borroka ere hartu gura izan da aintzat senidetze honeguz?

Bai, emakume kurdua eragile-rik garrantzitsuena da ia Kurdistan osoan, Rojavan batez ere (mendebaldeko Kurdistan, Siria iparraldean); Kobane hortxe dago. Emakumearen papera oso garrantzitsua da esparru guztietan, eta borrokaren aurrealdean dago askotan. YPG bataila-eremurako unitatea ere sortu da. Gerraren eraginez, joan egin zen gazte asko, baina emakumeak han geratu ziren, borrokaren frontean. Kurduak ez zuten ezagutzen emakumearen



ahalmena arlo guztietan. Baztertuta zegoen, hemen gertatzen den bezala, baina emakume kurduak borrokatu egin du, eta ia eskubide guztiak bereganatzea lortu du, Rojavan batez ere. Gaur egun, hezkuntzan, osasun arloan, emakumeen kontseiluetan... daude. Paper oso garrantzitsua dute arlo guztietan; baita politikan ere. Kobanen sortutako parlamentuko presidentea

emakumea da; presidentekidea gizonezkoa da. Berdin gertatzen da ministerioetan. Berdintasuna osoa da. Gure ordezkari politiko asko emakumeak dira.

Estatu gabeko munduko herri-rik handiena da kurduena, auzo eta komunitateetan egituratzen dabilen herria.

Irak, Iran, Turkia eta Siria. Lau herrialdek anexionatutako he-

“*Herri solidarioa da. Begikotasun handia du herri kurduak euskaldunekiko*”

“*Kobaneren suntsipena Daex eta Turkiaren arteko plangintza izan zen*”

rria da Kurdistan. Otomandar Inperioa amaitzean, Frantziaren eta Ingalaterraren arteko akordio batek zatitu zuen gure lurraldea. Ia 500.000 metro koadroko azalera duen lurraldea da gurea, eta 45-50 milioi kurdu gara. Guztion ametsa da estatu independente bat osatzea, eta Kurdistan zati bakoitzean borroka bat dagoen arren, batuta gaudere arerioaren aurrean. Esan behar da Turkiak herri kurdua suntsitu gura duela, eta ez dituela giza eskubideak errespetatzen. Kobaneren suntsipena Turkiaren eta Daex-en plangintza izan zen: Estatu Islamikoak Mosul eta Raqqa okupatu ondoren, Kobanera zabaldu gura zuen, Turkiagaz mugaraino heldu ahal izateko. Gobernu islamikoa du Turkiak, eta potentzia islamikoa sortu gura du; hartara, gainontzeko herriei —kurdua, herri sirioa...—erasotzeko.

Daex-en eraso bortitzek suntsitu zuten Kobane?

Bai. Turkiaren laguntzagaz egin zion eraso Daex-ek Kobaneri, Turkiak kurduak desagerrarazi gura ditu-eta. Baina AEBek ere bonbardatu dute Kobane, AEBek eta Europak ez zutelako gura Daex-ek Kobane okupatzea. Lehergailuak, tankeak... armamentu astuna erabili zuen Daex-ek eta kurduak armamentu arineguz egin zioten aurre etsai basati horri. Aurretik, askea zen Kobane. Kurduak politikoki eta administratiboki an-

tolatuta geunden, baina dena suntsitu dute. Daex kanporatu ostean, itzuli egin dira herritarrrak, baina askok ez dute etxerik. Bost erietxetik bat baino ez dago orain, eta ikastetxeetako ia ezertxo ere ez dago zutik.

Kobane berreraikitzen ari zarete orain?

Erasoen ondoren, hondakin guztiak garbitzea lortu genuen, Ipar Kurdistanen laguntzagaz. Orain hiria berreraikitzeke lanean daude Kobanen. Apurka-apurka, 106 ikastetxe eraiki gura ditugu, erietxeak, etxebizitzak... Laguntzagaz lortu dugu Kobane berreraikitzea, Durangok eta Gernikak lortu zuten lez. Lehen debekatuta zegoen hizkuntza kurdua, eta orain irakasten hasi dira ikastetxeetan. Arlo guztietan lan asko dago egiteko.

Nola jaso duzue kurduak euskaldunen elkartasuna?

Herri kurdua beti gogoratzen da euskaldunekin. Euskaldunak lagunak ditugu, eta elkartasun handia jaso dugu. Euskaldunek ere bizi izan dute gerra. Herri oso solidarioa da euskalduna, begikotasun handia du herri kurduak euskaldunekiko.

Ipar Kurdistango errepresio politika salatu du NBEk. Zer deritzozu Europaren jarrerari?

Europak ezagutzen du Turkiak egiten duena; NATO n dago. Baina interes ekonomikoak direla, Turkiagaz dituen aliantzak direla, isilik dago. Ez luke horrela izan behar. Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidentea sultan handi batek lez jardun gura du, eta bertako oposizio demokratikoa deuseztatu gura du. 30-40 parlamentari atxilotuta ditu; 100 hiri kurdu handienetako alkateak atxilotu dituzte terrorismoa egotzita, eta, Nazio Batuen txosten baten arabera, bedertzi hiri kurdu suntsitu dituzte, eta 600.000 herritarrek alde egin behar izan dute. Eta Europa isilik dago. Turkiak kurduak egingo dena suntsitu gura du, baina ez diogu utziko.

Newroz jaia ospatuko duzue.

Urteberri kurdua da. Askatasunaren, aldarrikapenaren eta herrien borrokaren jaia. Herri kurduaren borrokaren jaia da, kurduon askatasunaren jaia, baina beste herri batzuek ere parte hartzen dute: herri iraniarrak, afganiarrak, indoeuropearrak... Durangon hilaren 25ean ospatuko dute Newroz, eta han egongo naiz.



Lehior Elorriaga



MANCISIDOR

1866

Beste 150 urte elkarrekin

Andra Maria 9 · 48200 Durango · 946 810 628 · info@joyeriamancisidor.com



GRAN HOTEL
DURANGO

Bai, nahi dut
Ezkontza ikusgarria
Gran Hotel Durango

Zuei eta zuen gonbidatuei zerbitzu guztiak eskainiko dizkizuegu, zuen ezkontza eguna ahaztezina izan dadin: aretoak, kanpoko terraza, kanpoko igerilekua, logelak, suiteak, spa, ile-apaindegia, aparkalekua, edertasun tratamenduak eta dituzuen desira guztiak.




Gasteiz Bidea, 2 · 48200, Durango - Bizkaia · Tel. 94 621 75 80



Ezkontza baten kronika

Ezkontza tradizioaletik ihesi, bikote bakoitzak bere "egun berezia" bere modura antolatzen du. Egun horretan eroso sentitzeko, nork bere gustuen arabera antolatzen du. Detale txikiak zaintzen dituen horietakoa bazara, hurrengo orrialdeetan hainbat gako aurkituko dituzu. Orrazkera, jantziak, bidaiak, argazkiak... Erabaki asko dago hartzeko, beti ere norberaren izaera galdu barik.

Gozatu eta zorte on!



Eraztunaren unea

Ezkontza bateko momentu esanguratsuenetakoa eraztuna jarzten den unea da. Urrezkoa zein zilarrezkoa, harribitxiekin zein sinpleago, beti asmatuko duzu.



Basoko loreak

Ezkongai gehienek lore-sorta izaten dute eskuen artean. Basoko loreak dira une honetan ezkontza formal zein informaletan modan daudenak eta gehien erabiltzen direnak.

NUKLEO
ileapaindegia

94 658 29 96
Nizeto urkizu 14 behea
48230 Elorrio Bizkaia

MENDIGOIKOA *Donde el silencio se oye*

Ezkonberrien desioetara eta beharretara egokitutako ezkontza pertsonalizatuak.

30 urtetik gorako esperientzia dugu mota guztietako ezkontzak antolatzen.

San Juan auzoa, 38 | AXPE - ATXONDO | Bizkaia
Tel.: 946 820 833 | reservas@mendigoikoa.com
Ezagutu gairazu: www.mendigoikoa.com

Goco Tour AUTOBUSAK

ESKOLA-GARRAIOA, EZKONTZAK, OSPAKIZUNAK, LANGILEEN GARRAIOA LANTEGIETARA, KONGRESUAK.
7, 18, 22, 35, 38, 40, 55, 59, 71 PLAZATAKO AUTOBUSAK

Ezkongaientzako autoa: Mercedes Klasikoa eta S klaslea

Arregui auzoa - Condor industrialdea - C Eraikina - AMOREBIETA
Tel.: 946 308 250 - gocotour@gocotour.com
www.gocotour.com

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bafalo

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIKUA 688 861 975
info@zuretxokoa.com

ZURE txokoa www.zuretxokoa.com

Komunikatze 21 beldia, 1. era. - 48200 Durango - BIZKAIA

Autocares **Mallabia**

MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT EGOKITUTAKO IBILGAILUA

AUTOBUSAK:
18/22/36/56/60 plaza

Murueta Torre kalea, 2G blokea, etxabea
48200 DURANGO - Bizkaia
Tel.: 946 201 976
Faxa: 946 202 348

www.autocaresmallabia.com
info@autocaresmallabia.com



Lehior Elorriaga

ARGAZKILARIA



Ezkontzako emozioak argazkietan islaturik

Ezkontzak une hunkigarritz beteta egoten dira. Momentu horiek islatzen saiatzen da Lehior Elorriaga argazkilaria. Argazkietan edertasunari besteko garrantzia ematen dio momentuko emozioak islatzeari.



Argazkiak: Lehior Elorriaga



Arroitabalti baserria,
San Migel, 2 GARAI
Tel.: 946 228 240
Info@aboiz.es



*Esklusibotasuna eta dotorezia, Oiz mendiaren magalean.
Bizitza osoan oroituko duzu.
Ingurune natural zainduak sentsazioz beteko zaitu.*





Boss



LOA - Lidia Aguilera



LOA - Lidia Aguilera



Hoss Intropia

Aire bohemiodun soinekoak

Hainbat ezkongaik soinekoa aukeratzekoan ez dute arropa tradizionalik gura. Jai batera joan ahal izateko, kolore argiko soinekoen bila joaten dira dendetara. Eskara horren aurrean, marka batzuk ezkontzen unibertsoa zuzendutako eskaintza sortu dute. Hoss Intropiak, esate baterako, aire bohemiodun soinekoak diseinatzeari ekin dio (Bardezin salgai). Emakume asko arropa hauekin identifikatuak sentitzen dira. Goi-mailako joskintza edozeinen esku jartzeko saiakera egin dute. Gainera, diseinatzaileen belaunaldi berri bat dago norabide aldaketa honen atzean. Eta, ematen du ezkontzen munduan asmatzen ari direla.



Hoss Intropia



Roberto Torretta



Roberto Torretta



Boss



Bardezi

DURANGO

Bardezi GIZONAK
 📍 Arkotxa, 2 DURANGO
 ☎ Tel.: 946 81 61 83

Bardezi EMAKUMEAK
 📍 Artekale, 3 DURANGO
 ☎ Tel.: 946 21 80 66



Alicia Rueda

MODA DISEINATZAILEA

Ukitu berezia eta estilo propioa

Alicia Rueda patroien eta oihalen artean hazi zen. Diseinatzailea 13 urte gaz hasi zen bere arropa sortzen. Ondoren, bere ingurukoei arropa egiteari ekin zion. Moda diseinua, patronajea eta konfekzio industrialak ikasi ostean, trebatzen jarraitu du. Gaur egun, Bilboko bere dendan aukera zabala aurkituko duzu.

Alicia Ruedaren diseinuek ezaugarri propioak dituzte. Elegantzia, erosotasuna, kortea eta bukaera landuak bere arte-lanen ikurrak dira.

Ezkontide batek Alicia Ruedarengana jotzen duenean, bere ezkontzarako arropa berezia gura duelako da. Horrez gainera, hainbat aktore ezagunek sariketa zein ekitaldi berezietan ikusgarri jantzeko, Ruedarengana jotzen dute. Azken Goya sarietan Toni Acosta eta Leticia Doleraeren jantziak Ruedak sortutakoak izan ziren.

Whitealice

Bezeroen beharren erantzuna da Whitealice. "Urteetan ikusi dut bezero askok soineko zuriak gura zizutela zeremonia eta kokteletarako. Beste batzuek kolore leunak eskatzen zituzten ezkontza informaletarako". Ideia horretatik sortu zuen Whitealice kolekzioa. Laburbilduz, 'emaztegai ez emaztegai' horientzako zerbait proposatzen du beraien izaera alde batera utzi barik. Kolekzioan soinekoak, monoak, alkandorak, jertseak eta gonak aurkitu daitezke. Ukitu berezi bat duten piezak dira. Emaztegaiantzako arropaz gainera, Bilboko dendan egungo emakume langileentzat Pret-a-porter kolekzioa du Alicia Ruedak. Gainera, zeremonia eta kokteletarako arropa ere diseinatzen du Pret-a-couture kolekzioan. Eta hori gutxi balitz, Ruedak neurrira egindako arropa ere diseinatzen du amabixi eta gonbidatu berezientzat.



Whitealice kolekzioa, arropa bereziz osatua

Ezkontza zein zeremonia baterako, kolore zuridun jantziak aurkituko dituzu Whitealice kolekzioan. Monoak, gonak, alkandorak, jertseak... Konbinazio anitzak osatu ditzakezu estilismo berezi bat sortzeko, ezkondu zein ez.



Emaztegai batek bilatzen duen guztia

Ezkontzera doan edozeinek behar duen guztia aurkituko du Alicia Ruedaren kolekzioan. Pertsonalitatez betetako diseinuek egun horretarako amesten duzun jantzia eskainiko dizute. Xarmaz betetako jantzien ezaugarriak erosotasuna eta elegantzia dira.



Billboko dendan aukera guztiak

Kontxa jeneralaren kalean, 4 an, du Alicia Ruedak bere denda. Bertan, ezkontzarako jantziez gainera, Pret-a-porter eta Pret-a-coiture kolekzioetako jantziak aurkituko dituzu. Zure beharretara egokitzen den jantzi hori aurkituko duzu, zalantza barik.



Mister Swing Bilboko enpresagaz, sei urte daramatza Mikel Nuñez pianista iurretarrak ezkontzetan musika emanaldiak eskaintzen. Irakasle lanagaz eta hainbat taldegaz dituen proiektuekin uztartzen du Nuñezek lan hori.

“Eska diezazukete ‘Ave María’, eta jarraian Metallicaren kanta bat jotzea”



Zelan eta noiz hasi zinen esparru honetan?

Aspaldiko lagun bategaz hasi nintzen ezkontzetan jotzen. Gero eta eskaintza gehiago jasotzen hasi zen, eta Mister Swing enpresa sortu zuen. Azken sei urteetan enpresa horrek kontratatuta jarduten naiz.

Zer da, zehazki, eskaintzen duzuen?

Musika nahierara eskaintzen dugu. Formazio ohikoen eskaintza dago, batetik; pianoa eta biolina, ahotsa eta soka laukotea, esaterako. Baina bezero bakoitzaren arabera bestelako taldeak ere eskaintzen ditugu; aurten, adibidez, oboe eta harpa kontzertu bat ere eskatu digute.

Bezeroaren arabera izaten da erreperitorioa?

Bai, eta, nire ustez, gure enpresaren gauzarik onena hori da; guztiz zabalik gaudela erreperitorioari dagokionez ere. Bezeroari erabateko askatasuna eskaintzen diogu erreperitorioa osatzeko. Soinu banda asko eskatzen dizkigute, adibidez. Musikari oso moldakorrak gara, eta ahoz ahokoari esker ospe ona hartu dugu.

Zelako kanta eskatzen dizkizute gehien?

Gehienak ez dira kanta elizkoiak izaten, bestelakoak izaten dira, nahiz eta *Ave María* ere gure *hit* ezagunetarikoa bat den. Hori bai, eska diezazukete *Ave María*, eta ja-

rraian Metallicaren kanta bat jotzea. Eta ezkontzetan hori da politena, nire ustez: ezkontzen direnentzat esanahi berezi bat daukaten kanta jotzea.

Uda sasoi izaten da zuentzat lanpetuena?

Bai, udaberrian eta udan izaten dugu lan gehien, nahiz eta neguan ere izaten ditugun ezkontzaren batzuk. Urtean 30-40 ezkontzatan jotzen genuen hasieran, eta orain 60 bat ezkontzatan. Bizkaian ibiltzen gara gehien, baina Araban, Gipuzkoan eta Kantabrian ere jo izan dugu. Pianoa asko eskatzen dute, eta azkenaldian, urtean 30 ezkontza inguru egin izan ditut nik.

Ezkontzaren zer unetan jotzen duzue?

Zeremonian zehar edo koktelean aritzen gara —koktelerako, jazz taldeak eskatzen ditu jendeak gehienetan. Gure enpresak ez du dantzaldietarako musikarik eskaintzen.

Anekdotak asko bizi izan dituzue?

Bitxia da, adibidez, erreperitorioari dagokionez abadeekin sarritan izaten den tirabira. Normalean ezkontideek egiten dute berba abadeagaz, baina inoiz gertatu

zaigu eskaini gura genituen kantak elizkoiak ez zirelako abadeak zailtasunak ipintzea.

Zelan bizi dituzu ezkontzetako kontzertuak?

Zeremonian zehar jotzea gauza berezia izaten da; ezkontideentzat une oso inportantea da, eta presio apur bat izaten duzu momentua ez zapuzteko. Koktelera, aldiz, bestelako aldarrean joaten gara: jendea jaten eta berbetan egoten da, eta geure artean disfrutatzea izaten da helburua. Libreago ibiltzen gara. Ezkontzetakoak oso emanaldi laburrak izaten dira, eta kontzertu batera baino askoz lasaiago joaten gara.

Ezkontzetako jarduna kontzertuekin eta irakasle lanagaz uztartzen duzu.

Bai, eta pozik nabil hiru arloetan. Duela urte eta erdi amaitu nituen ikasketak Musikaren, eta Sopelan, Durangon eta Gernikan dihardut pianoa, inprobisazioa eta musika lengoia irakasten. Hainbat jazz taldetan aritzen naiz, Josu Beragaraz eta The Groovies taldean... Ezkontzak udan izaten dira batez ere, normalean eguerdian, eta momentuz, ondo uztartu ditzaket. Hala ere, egun berean ezkontza bi, koktel bat eta kontzertu bat eginda nago.



JAT ETX EA

PLATERUENA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net
www.plateruena.eus



EGUNEKO MENUA
Astehenerdik larunbatera

ASTEBURUETAKO MENUA

MENU ETA OSPAKIZUN BEREZIAK

Izorne Luengo Iriondo hamasei urtegaz hasi zen ezkontzetan zerbitzatzen. Ibilbide luze baten ostean, egun, Akebaso jatetxeko zuzendari eta maitrea da.

“Ezkontzaren prestaketa lanekin disfrutatzea, egun handia topera bizitzea, eta ondoren, ezkontza gogoratzea da garrantzitsuena”

Urte luzez zabilta ezkontzetan maitre lanak egiten.

Hamasei urtegaz amak lan egiten zuen jatetxe batean hasi nintzen zerbitzatzen. Asteazkenean, idazkaritzako ikasketak egiten nituen, eta asteburuetan lan. Hainbat urte egin nituen bertan, eta hogeita hiru bat urtegaz Madrilerako joateko aukera izan nuen, Fernando Canalesi esker. Orduz geroztik, hainbat lekutan ibili naiz Canalesen eta Mari Carmen Gonzalezen taldeagaz.

Orain, berriz, Akebasoko zuzendaritza hartu duzu?

Bai. Mari Carmen, orain arteko zuzendaria, urrian erretiratu zen, eta neuri eskaini zidaten zuzendaritzako kargua. Hartzea erabaki nuen.

Esperientzia handia duzu ezkontzen munduan. Zuretzat zer eduki behar du ezkontza batek?

Nik bikoteei beti esaten diet, ezkontza batean garrantzitsuena hiru fase bizitzea dela. Lehenengoa, ezkontzaren prestaketa lanak bikotean disfrutatzea; bigarrena, egun handia bera topera bizitzea; eta azkena, behin ezkontzaren eguna bera gogoan izatea. Bestalde, oso garrantzitsua da ezkontza batean bikoteak gura duen hori, izan janaria, aipangarriak... egotea. Adibidez, ni beti saiatzen naiz alde bien arteko harmonia bat lortzen, beraientzat egun ahaztezin bat izan dadin.

Horrenbeste urtean, gauza bitxi ugari ikusiko zenuen, ezta?

Bai. Hainbat ezkontza bitxi ikusi ditugu, eta gauza harriagarri ugari egiteko eskatu digute. Adibide bat jartzearen, Akebaso neska euskaldun eta mutil arabiar baten ezkontza bizi izan genuen. Ezkongaiak plater arabiar bat gura zutela esan ziguten, mutilaren familia ezkontzara baitzetozen. Arroz arabiarra egin genuen, eta oso ona egin genuela esan ziguten.

Oso ezberdinak al dira duela urte batzuetako ezkontzak eta gaur egungoak?

Guztiz ezberdinak dira. Esaterako, jatekoari dagokionez, duela urte batzuk menu tradizionalak eramaten ziren, zainzuriak, almejak... Gaur egun, berriz, menu tradizionalak ukitu berritzaileak ematen zaizkie.

Zer da orain ezkongaiak gehien eskatzen dizuetena?

Ezkontzako menuari dagokionez, guri gehien eskatzen digutena postre modura pastela beharrean tostadak jartzea da. Gure produktu izarra dela esan dezakegu. Bestalde, gaur egun oso modan dago eguerdiko ezkontzetan, afari lez, barbakoa edo txitxi-burruntzia egitea, kebaba jartzea, antzinako furgoneta bat alokatu eta saltxitxa eta hanburgesak bertan egitea...



akebaso

Leku ezin hobea izateko, lagun minak ezin dira falta.

San Juan auzoa, 16
Atxondo, Bizkaia

Tel: 946 582 060

www.akebasorestaurante.com
akebaso@akebasorestaurante.com



Esther Torralbo

ESTILISTA

Orrazkera aukeratzeko eguna

Orrazkera da ezkontza egunerako aukeratu beharreko gai garrantzitsuenetako bat. Arlo horretan, Esther Torralbo estilistagaz esku onetan egongo zara.

Estilismoa aukeratzeko prozesua zelan garatzen duzue?

Aurretik hitzordua jarri eta elkar ezagutzea gustatzen zait. Egun horretatik aurrera, gustuko ditugun orrazkeren argazkiak bidaltzen hasten gara. Ezkontza baino hilabete lehenago proba bat egitea gustatzen zait. Soinekoaren proba eguna aprobetxatu daiteke dena batera zelan geldituko den ikusteko.

Une honetan, orrazkera aldetik, zer dago modan?

Denboraldi honetan gehien eskatzen didatena ilea behean batuta eta trentzak dira. Orrazkera guztiak oso informalak eta sinpleak. Estilo honegaz bat egiten dut, nire estiloagaz doalako.

Egun horretan zu ere urduri jartzen zara?

Urduritasun izugarria pasatzen dut. Hunkigarria da ezkongaiak eta sentitarteko zein lagunak hain zoriontsu eta pozik ikustea.

Ile-trentzen sasoa

Estilismoa hautatzerako orduan, denboraldi honetan ile-trentzak dira moda-modan daudenak. Orrazkera aniztasun handia eskaintzen duen ilekordak ez dizu hutsik egingo.



Esther Torralbo



Esther Torralbo

Orrazkera informala

Atzean gelditu dira orrazkera sofistikatu eta landuak. Ezkongai gehienek ile bildu informalak aukeratzen dituzte egun honetarako.



Esther Torralbo

Buruko naturalak

Orrazkerari osagarriak gehitu diezazkiokezu. Loreek ukitu berezia ematen diote. Gainera, orrazkera naturalek osagarri naturalekin bat egiten dute.

esther torralbo
ESTILISTA

Emaztegiaren eta gonbidatuen orrazkera eta makillajea etxez etxe.
Aurretiko hitzordua: 600 733 839
Whatsapp bidezko arreta



Boraa Auzoa
Garai Baserria, 11
ZORNOTZA
boraa@boraa.com
Tel.: 946 734 747

BORAA
JAETXEA

Ametselako tokia naturaren bihotzean.

Zuekin batera konpromisoa hartzen dugu zuen ezkontza eguna ospakizun ahaztezina izan dadin. Horretarako, nahi dituzuen zerbitzu guztiak jartzen ditugu zuen eskura, detaile guztiak ezin hobeto zainduz.

Terrazan zeremonia zibilak egiteko aukera ere eskaintzen dugu.

Ezkontzaren urduritasun eta emozioen ostean, desiratutako eztei-bidaia dator. Aukera zabal baten artean, hiru helmuga proposatzen ditugu. Bakoitzak bere xarma berezia duen arren, denetan paradisu aurkituko duzue.

New York, Karibe, Costa Rica eta Thailandia: aukera anitzak ezkontideek paradisu aurki dezaten



New York eta Karibe: hiria eta hondartza

New Yorkek eskaintzen dituen aukerak ezin dira alde batera utzi eztei-bidaia antolatzerakoan. Manhattan bisitatzeko, Askatasunaren Estatua ikusteko, Central Parken paseatzeko edo metroan sartzea egin barik gelditu ezin diren gauzetako batzuk dira. Metropoliaren burrundara eta abiadura Karibeko hondartzetan lasaitasunagaz uztartzea da proposamena. Hegazkina hartu eta Kubara joanez gero, bila zabiltzan lasaitasun hori aurkituko duzue Cayo Largo hondartzetan. Karibeko haretzetan behar duzun atsedena hartuko duzue. Gainera, horrela, Kuba ezagutzeko aukera emango dizue.



Altzor naturalak eta hondartzak gozatu

Ahaztu ezineko eztei-bidaia gura duten bikoteentzat, Costa Rica helmuga proposa da. Izan ere, herrialde honek paisaia izugarriak, fauna eta flora ikusgarriak eta hondartza amaigabeak eskaintzen ditu. Uretako kirol zaleentzat eta ur termalak gustuko dituzteentzat leku paregabea da, zalantzarik barik. Ezin zaitezke herrialde honetatik joan altzor preziatua den Cahuita parke naturala bisitatu barik. Oihan amazonikoa ere ezagutu daiteke, Tortuguero parke nazionalera bidaiatuz. Mundu magiko hau ezagutzeko, abioneta edo itsasontzia hartu behar da. Paradisu ikusgai izango duzue.



Hondartza ikusgarriak eta paradisu naturalak

Bidaiari batek bila dabilen hori aurkituko du Thailandian. Kultur arloko monumentuak, hondartza paradisiakoak eta kultura berriak ezagutzeko aukera ezin hobea da. Egin beharreko bisiten artean, Bangkok-eko Grand Palace dago. Phi Phi irlak, emakume jirafen tribua edo bertako tenplu budistak. Munduko hondartzarik ikusgarrienak Phra Nang penintsulan aurkituko dituzue, lehen Siam erreinua izenez ezagutzen zena. Horra itsasotik bakarrik hel zaitezke. Hala ere, hondartzarik ederrena Ao Phra Nang da. Urpekaritza eta snorkelaren paradisu, zaletasun horietaz gozatzeko aukera izango duzue.

bagoaz

Txinurrisolo, 6 behea
Matiena · ABADIÑO
Tel.: 944 657 577
Mug.: 639 346 506
www.bagoaz.com

Domínika Errepublikan

Txina (Guilin)

NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK

KATAL TOURS Bidaiak *Airmet*

PASIOA ETA PROFESIONALITASUNA ZURE BIDAIETAN

Murveta Torre, 8B, etxabea - Landako etorbidea - DURANGO
Tel.: 94 646 28 19 - 647 84 96 02
javier@kataltours.com - www.kataltours.com



OLA JAUREGI

www.olajauregi.com

Olajauregi hotel-jatetxeak gune ezin hobeak ditu zuen ezkontza ospatzeko. Primerako zerbitzua eta talde profesional gertukoa jarriko ditugu zuen esku, zuen ezkontza eguna benetan berezia izan dadin.

Gure zerbitzu guztietan pribatutasuna eta malgutasuna eskaintzen ditugu. Eta plater pertsonalatuak, kalitate handikoak, bezeroen nahierara eta beharrianetara egokituak.

Terraza handi eta erakargarria dugu, lorategi eder eta guzti, zeremonia zibila eta ongietorriko koktela egiteko. Horrez gain, kanpoko karpak, beiraz hornitutako gune bat, diskoteka eta chill-out gunea ere baditugu. Durangoko hirigunean gaude, eta doako aparkaleku pribatua daukagu.

Kurutziaga kalea, 52 Durango · Tel.: 946 200 864 · info@olajauregi.com



Patxo Telleria De la Fuente | Aktorea | 'Euskal Musikaren benetako istorioa' obraren gidoilaria | Bilbo (1960)

“Musikak indar emotiboa ematen dio, baina, funtsean, obra komikoa da”

Durangoko San Agustinen eskainiko dute 'Euskal Musikaren benetako istorioa', martxoaren 30ean

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Zelan joan zen Bilboko Loraldea jaialdiko estreinaldia? Inor ez da harrituko oso ondo joan zela esaten badut, estreinaldi bati buruz horixe esaten delako beti, baina, oraingo honetan, estreinaldia bereziki ondo joan zela da egia. Urte asko daramatzat antzerkian, eta gutxitan ezagutu dut Arriagako hori bezalako estreino borobil bat. Borobila izan zen, zentzu guztietan: antzokia bete egin zen bi egunetan, eta amaieran jendea zutik txaloka eta braboka ibili zen.

Bi emanaldietan Arriaga lepo betetzea bera ez da gauza azpimarragarria?

Kontuan edukita euskarazko antzerkiaren ikusle kopurua beti gaztelaniazkoa baino murriztagoa dela, bi egunetan antzokia betetzea bada zerbait. Ikuskizunak jakin-mina sortu du, eta jende asko etorri da. Hala ere, esan beharra dago Bilbo gure hiria dela, gure erroak han ditugula, eta gure ikuskizunak aurkeztu izan ditugunean jende asko etorri izan zaigula beti.

Oholtzatik zer sentsazio izan zenuten? Jendeak erantzuten zuela nabaritu zenuten?

Drama antzezten zabiltzanean,

batzuetan ez duzu jakiten ondo funtzionatzen ari den ala ez. Pista gutxi izaten duzu. Gurea bezalako komedia batean, aldiz, oso erraza da jakitea istorioa ondo doan ala ez. Barreak konkretuak, fisikoak, neurgarriak dira. Gure beste ikuskizun batzuetan bezala, ikuslegoaren barrea intentsoa eta etengabea izan da eskaini ditugun emanaldietan. Ez da ohikoa, Bilboko estreinaldian bezala, komedia batean jendeak amaieran zutik txalo egitea: musikaren indar emotiboak katarsi txiki bat sortzen du. Musikak indar emotiboa ematen dio, baina, funtsean, obra komikoa da *Euskal Musikaren benetako istorioa*.

Euskara, euskal kultura... Gai horiez modu serio eta transzendentalean jardutera ohituta gaude. Zuek umoretik jarduten zarete horrelako gaiez.

Bai, galtzerdiari buelta ematen saiatzen gara. Hori baita, azken finean, umorea; gauzak euren ohiko testuingurutik ateratzea. Gaiei garrantzia kentzea lortzen duzu horrela. Obra honetan, adibidez, 200 kanta zati darabiltzagu. Hainbat elkarrizketa kanten letra zatiekin egiten ditugu; letra horiek testuingurutik aterata, noski. Eta hor sor-



“**Gutxitan ezagutu dut Arriagan eskaini duguna lako estrenaldi borobil bat**”

tzen da umorea, gauzak testuingurutik ateratzen ditugunean.

Kantak ezezik euskal kantagintzako pertsonaiak ere agertzen dira ikuskizunean?

Autoreei buruz baino, kantei buruz dihardugu, nahiz eta kasu batzuetan pertsonak ere aipatzen ditugun ezinbestean. Ezin izan ditugu Laboa edo Iparragirre aipatu barik utzi. Gidoia sortzerakoan oso garbi eduki dut

erabiliko nituen kantak ezagunak izan behar zirela. Guztiz errotuta dauden kantak dira, herriarenak bihurtu direnak.

Zeuk idatzitakoa da ikuskizunaren gidoia. Zelako sorkuntza prozesua izan zen?

Hau bezalako lanak ematen dutena baino askoz konplikatuagoak izaten dira: ikuskizun jostariak diren arren, eta askotan inprobisatzen gabiltzala eman dezakeen arren, lan handia egin beharra dago. Ikuskizuna esketxen bidez eratuta dago, hau da, eszena bakoitza autonomoa da. Horrek esan gura du esketx horietako bakoitzerako istorio bat asmatu behar duzula. Kasu honetan, 18 dira. Euskal musikaren historiari buruzko obra izanik, ez dakit esaten zenbat denbora eman dudan kantutegia arakatzen, adibidez. Hilabetetako lana izan da.

Hiru musikaririk dihardute Martinezegaz eta zugaz oholztan.

Bai, oraingoan bost gara oholztan. Adrián García de los Ojos, Iván Allue eta Maria Arriaga musikariak batu zaizkigu Mikeli eta bioi. Oso musikari eklektikoak dira hirurak. Horrelako profesionalak behar genituen euskal musikaren historia- ren ibilbide osoa —neolitikotik gaur eguneraino—, kontatzeko.

Zein da antzezlaneko istorioa? Gu ustezko musikologo bi gara, euskal musikan adituak, online seminario baten grabazioa

“**Ikuskizuna esketxen bidez eratuta dago; eszena bakoitza autonomoa da**”

egiten gabiltzanak. Mikelen pertsonaia, adibidez, musikari ona dela uste duen belarri eskaseko pertsona bat da. Oso istorio dibertigarria da. Uste dut hori dela Ez Dok Hiru-ren arrakastaren gakoetako bat: guk geuk ere oso ondo pasatzen dugula.

Zelan animatuko zenuke jendea Durangoko egueneko emanaldira joatera?

Ikuskizuna ikusi duen norbaiti galde diezaiotela esango nieke. Seguru nago ikusi duenak “ez ezazu galdu!” esango diela.

Maiatzean, zuk idatzitako beste lan bat ikusteko aukera izango da San Agustinen. Eneko Sagardoy durangarra aktore taldean duen 'Azken trenaren Treblinkara' obra.

Vaivén konpainiak egindako enkargu bat izan zen hura. Janusz Körzcak pedagogo poloniarrek 1942an 200 haur judu hartzeko sortu zuen umezurtegiaren azken egunak kontatzen ditu antzezlanak. Ez Dok Hiru taldean egiten dugunagaz ez dauka inolako antzik, baina oso lan duina da, oso potentea.



Hiru musikari batu zaizkie Mikel Martinezi eta Patxo Telleriari ikuskizun honetarako.

> LEHIAKETA Itsaso Esteban Elorrioko Arriola antzokiak eta Logela Multimedia taldeak antolatzen duten Break On Stage kale kulturen jaialdiaren hamazazpigarren edizioa ospatuko dute, bihar, Bilbon. Bilbao Arenan izango da hitzordua, 18:45ean, eta kale kulturen askotariko adierazpenetan diharduten 100 artista bilduko dira jaialdi horretan. Iaz, 5.000 lagunek gozatu zuten ikuskizunaz.

Europako break dance talderik onenak lehiatuko dira Bilbao Arenan, eta, horrez gainera, kale kulturako askotariko ikuskizunen erakustaldiak ere izango dira. Aurten, Bmx Big Air saiorako, arrapala erraldoi bat atonduko dute Bilbao Arenan, eta baita parkour erakustaldietarako zirkuitu bat ere. Bost euskaldunek parte hartuko dute parkour erakustaldian. Tartean, baita Rush elorriarrak ere.

Europako break dance arloko talderik ezagunenetariko batzuk lehiatuko dira 2017ko Break On Stagen: Fantastic Armada, Flavor Kingz, Team Ver-sus eta Feel The Sound.

Bihar da Arriolak eta Logelak antolaturiko Break On Stage

Kale kulturen jaialdiaren 17. edizioa burutuko dute bihar, Bilbao Arenan



Break dance arloan ospe handikoak diren lau talde lehiatuko dira aurten, Break On Stage jaialdian.

Urban dance lehiaketaren finala ere burutuko dute bihar, Bilboko jaialdian. Aretxabale-tan eta Elorrion jokatu zituzten saioetan sailkatu ziren Hop Family, Legacy Breath, The Jungle,

Dale Al Play eta Bamboo taldeak dantzatuko dira saio horretan.

Sari banaketa 20:30ean egingo dute, eta Ajax & Prok taldeak joko du, ondoren. Rapa egiten dute Granadako Ajax eta Prok

anaiek, eta Blasfem DJak lagunduta jardungo dira Bilbon.

Bilbao Arenako ateak 18:00etan zabalduko dituzte bihar, eta 19:00etan hasiko da aurtengo Break On Stage.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA URIEN TELLETXE

Ikaslea



Sua

Kanpoan euria eta haizea. Beste behin ere tantaz bete zaizkigu etxeko leihoak; gero, markak gelditzen dira. Babak lapikoan egiten ari dira, behetik berotzen duen suari esker, eta sukaldean nabaritzen da halako goxotasun bero bat. Bitartean, mahaiko ordenagailuan suaren bueltan egiten diren dantzei buruzko erreportaje bat ari da irakurtzen, ikerketa antropologiko bat burutzen ari denetik alde guztietan ditu suaren inguruko materialak. Gogoratu da beheko suari egur sendo bat sartu beharko diola egun guztia amatatu gabe iraun dezan. Horretan ari dela suak aurpegia berotzen dio, eta egur hondarrek sortu duten brasari begira geratu da, hipnotizatuta bezala. Prometeorekin oroitu da, eta dibinitateari zor zaion eskaintza bezala, hari eskerrak emateko beharra sentitu du. Bat-batean, material etnografikoez gain, ingurua sutua duela nabaritu du, babak, ordenagailua, beheko sua eta hipnosiaren denborak utzi dion aurpegia.

Guatemalako *Hogar Seguro*n ere emakumeek ingurua sutua izan zuten, baina atera ezinik geratu ziren, giltzaperatu egin baitzituzten 40 feminizidio eraginez. Mahaitik altxa eta kaleak sutzera atera da, kontzientziak sutan jarri eta barruak erre zaizkien borrokalari nekatuak hauspotzera. Justizia gure eskuetan hartzea da bide bakarra estatueren justiziaz hiltzen gaituenean.

Plateruena, sektoreko nazioarteko mintegira

Zipren egingo duten jardunaldira gonbidatu dituzte

> MUSIKA I.E.

Europako Musika Kontseiluak bultzatzen duen Stamp proiektuaren barruko egonaldi batean parte hartzeko gonbidapena jaso du Durangoko Plateruenak. Euskal Herriko aretoak biltzen dituen KulturaLive elkartearen ordezkari gisa joango da Plateruena apirilaren 27tik 30era Zipreko Nikosia hirian burutuko duten jardunaldi horretara.

Musika arloko ekintzailetzaz, jaialdi eta ekitaldien antolakuntzaz, audientziez, integrazio sozialaz, saretzeaz eta nazioarteko kooperazioaz jardungo dira, besteak beste, musikaren sektoreko eragileak, apiril amaieran Zipren egingo

duten mintegian. "Europako kontaktuak landu eta baliabide digital berriak ezagutuko dituzte" parte-hartzaileek.

Musika arloko ekintzailetasunari buruzko ikastaro baten barruan, Eneko Barberena Plateruenerako kudeatzaileak berbaldia eskainiko du Nikosia mintegian. Besteak beste, Plateruenerak musika talde hasiberri eta amateurekin egiten duen lana azalduko du Barberenak bere hitzaldian. Musika jaialdi handiez haratago, bestelako musika eszena oso garrantzitsu bat dagoela defendatuko du Barberenak, eta hizkuntza gutxituen eta musikaren arteko hartu-emanaz ere jardungo da.

Poesiaren eguna ospatu dute lurretan

Poesiaren inguruko ekintzak izan dituzte asteon Herri Bibliotekan. Gaurko ere bada proposamenik

> LITERATURA I.E.

Martxoaren 21a Poesiaren Nazioarteko Eguna izan da, eta egun hori ospatzeko *Ahaztu eta jolastu* izeneko jaialdia antolatu dute lurretako Herri Bibliotekan, gaurko. Saroa Bikandik eta Peru Magdalenak dinamizatuko dute ekimena, eta bi saio eskainiko dizkiete haur eta gazteei: hiru eta lau urtekoentzako saioa eskainiko dute, 17:30ean; eta bost urtetik gorakoentzako emanaldia, 18:00etan.

Bibliotekaren eskutik baita, poesiaren inguruko hainbat tailer ere egin dituzte lurretan aste honetan. Lehen Hezkun-

tzako ikasleak kaligramak eta haikuak sortzen ibili dira, adibidez, eta rap ikastaro batean parte hartzeko aukera izan dute DBHko 2. mailako ikasleek.



Penev
La Teta Calva (Valencia)

Martxoaren 25ean, 20:30ean

Euskal Musikaren benetako istorioa

Ez dok hiru!

Martxoaren 30ean, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GINEA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA

IGANDEETAN MENU BEREZIAK

NEWROZ JAIA 2017

MARTXOAK 25
18:00etan
NEWROZ EGUNA
JAIALDIA

MARTXOAK 30
20:00etan
KANTULAGUN

KANTALDIA

Bertso saioa

ANDONIEGANA
IGOR ELORTZA
JONE URIA
MAIALENI LUIANBIO
UNAITURRIAGA
TXABER ALTUBE

MAITE BERRIOZABAL

APIRILAK 1
19:00etan
GURE ESKU DAGO BERTSO SAIOA
BERTSOLARITZA

AGENDA
> FUTBOLA
BIGARREN B MAILA
(gizonak)

Amorebieta - Socuellamos
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

OHOREZKO MAILA
(gizonak)

Iurretako - Apurte
· Zapatuan, 17:00etan,
Larrakozelaian.

Zaldia - Padura
· Zapatuan, 16:15ean,
Solobarrian.

Elorrio - Sondika
· Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden.

LEHENENGO
ERREGIONALA (gizonak)
Amorebieta B - Urbiet
· Domekan, 16:30ean,
Txolonen.

> ARETO-FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
(gizonak)

Presion Break - Zalditxo Araia
· Domekan, 12:00etan,
Berrizburun.

MAILA GORENA
(gizonak)

Mallabia B - Otxartabe B
· Domekan, 19:00etan,
Zaldibarko kiroldegian.

Elorri Txiki - Scorpio
· Zapatuan, 16:00etan,
Elorriko kiroldegian.

> SASKIBALOA
ZILARREZKO LIGA
(gizonak)

Zornotza S.T. -
Torrans Vicens L'Ospit
· Zapatuan, 18:30ean, Larrean.

EUSKADIKO LEHEN
MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué -
Electro Alavesa Marianistas
· Domekan, 12:00etan, Tabiran.

EUSKADIKO LEHEN
MAILA (emakumeak)
Tabirako Baqué - Leioa
· Domekan, 12:00etan,
Landakon.

EUSKADIKO BIGARREN
MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué - Hernani
· Zapatuan, 18:00etan,
merkatu plazan.

> PILOTA
BIHARKO IZARRAK
- P.Labaka-Sarasa /
Alberdi-Urizar
- Prado-Zezeaga / Espinal
Arandia
· Eguenean, 21:15ean,
Mallabiko pilotalekuan.

> TXIRRINDULARITZA
Bizkaia Durango emakumeen
taldearen aurkezpena.
· Martxoaren 31n, ostiralean,
19:00etan San Agustin Kultur
Gunean.

Urko Bidaurrezaga | DRT-Nissan Gaurisa taldeko jokalaria | Durango, 1998

“Ni lako 83 kiloko jokalaria batek 120 kiloko bat plakatu behar du sarritan”

DRT-Nissan Gaurisa taldeko gazteenetako bat da Bidaurrezaga; pozik dabil nagusien artean

> KIROLA Markel Onaindia
Bigarren taldeko fitxagaz hasi arren, lehen taldeagaz sei partidutik gora jokatu eta automatikoki nagusien fitxa lortu du Urko Bidaurrezagak. Ohorezko B Mailan aldea igarri du, fisikoki eta taktikoki.

Lehen denboraldia duzu lehen taldeagaz. Nola zaude taldean?

18 urtez azpikoetatik hona igo eta hasieran ez dakizu ezta zelaian nondik zabilzan ere. Aurredenboraldi gogorra egin genuen; ni berandu etorri eta lehen egunean egurra hartu nuen. Taktikoki ere, askoz gehiago jokatzen dute hauek. Piloa igartzen da aldea. Hala ere, orain iaz baino askoz gehiago disfrutatzen dut.

Zergatik?

Gehiago ikasten duzulako, eta exijentzia maila altuagoa delako ere bai. Ahalik eta gehien ematen duzu. Entrenamendu egunak noiz helduko itzaroten egoten naiz.

Lehen taldean aritzea exijentea da...

Bai. Astean hiru entrenamendu ditugu, astelehen, eguzten eta barikuetan, eta borondatezko saioak ere bai martitzen eta eguenetan. Gero, asteburuan partidua. Baina pozik nabil. Azken batean, neuk aukeratu dut errugbian jokatzea. 9-10 urtetatik nabil, neuk gura dudalako. Bestalde, batzuek entrenatu ezin izan arren ere jokatu behar izan dute noizbait, jokalaria gutxi geundelako; adibidez, kide bat Vigoraino etorri zen autoz, azken orduan, eta horrek erakusten du zelako konpromisoa dagoen taldean.

Zure etxean afizioa konpartitzen dute?

Nire gurasoak ere etortzen dira partidua ikustera, eta besteek galdetzen dietenean, “bai, horixe da gure semea, gazteena!”, esaten dute. Batzuetan beldurra pasatzen dute, beti kolpekin edo ubelduekin nabil-eta. Osabak ere esaten dit: “Urko, utzi errugbia eta apuntatu zaitez igeriketara-edo”.



Baina ni hementxe nabil pozik. Gainera, taldean giro oso ona dugu, eta itzelean pasatzen dut.

Azken lau neurketetatik hiru irabazi dituzue.

Liga osoan zehar, etxean nahiko ondo ibili gara, baina kanpoan nahiko eskas askotan. Azken txanpa honetan, Oviedon irabazi genuen, eta A Coruña berdindu. Domekakoa kenduta, hurrengo Valladoliden izango da, eta uste dut badugula aukera irabazteko. Batzuetan amorrua ematen du entrenamenduan landutakoa partiduan ez ikusteak, baina orain bide onean goazela uste dut.

Bolada onean zatozte, beraz. Azken partidua Oviedoren aurka jokatu eta 25-26 irabazi genuen, puntu bakarreko aldeagaz. Zintzoki, amaieran ez ne-

kien zelan gindoazen, partidua oso orekatua izan zen eta. Itzela izan zen, oso ondo pasatu nuen.

Zelan ikusten duzu domeka honetako aurkaria?

Vigoren aurka jokatuko dugu domekan, 12:00etan. Sailkapenean behean daude, eta puntu bila etorriko dira. Etxean jokatzen dugunez, ezin dugu barkatu.

Seigarrenak zarete sailkapenean. Gustura zaudete?

Burgos doa lider, eta euren etxean ia-ia irabazi genuen, azken hamar minutuak kenduta. Beraz, gorago egotea lortu ahal genuela uste dut, lehenengo lauren artean, bai. Lesioak-eta eduki ditugu, eta kanpoko partiduetan igarri da. Baina seigarren postua ere ondo dago.

Hegaleko jokalaria zara. Zer behar du zure lekuan jokatzen duenak?

Izatez nahiko azkarra naiz. Iaz ez nuen leku horretan jokatzen, baina aurten hori lortu eta pozik nago. Asko ikasi dut, eta oraindik badut bidea. Hegalekoa bizkorra izan behar da, plakaketak egiteko zaila, eta bera ere aurkariak geratzeko kapaza. Ni lako 83 kiloko batek askotan 120 kiloko bat plakatu behar du; beraz, beti gerri-

tik behera. Hala ere, errugbian posizio asko daude, eta denetan behar da zerbait.

Umeen entrenatzaile ere bazara. Zelako esperientzia da?

Hiru ibiltzen gara batera. Azken finean, umeak dira eta umekieretan ibiltzen dira. Hiru gara, 25 umegaz, eta batzuetan nekeza da. Baina denak onak dira eta kariñoa hartzen diezu. Barikuetan etortzen gara, apur bat jolastu, errietaren bat egin... (barrez).

Emaitza kontuan hartzen al da umeen taldeetan?

14 urtez azpikoetan pixka bat serioago hartzen hasten da kontua. Baina gure haurrekin, 6-8 urtekoekin, ez. Baloigaz korrika egitea, zilindro batzuzak plakaketak egitea, harapatzen jolastea... Errugbiaren gaitasunak hartzea da helburua. Batzuk oso tranpatiak dira (barrez). Oso pozik nabil.

Errugbia kontaktuko kirola da, baina balioak zaintzen ditu...

Asteburuan San Mamesen egon nintzen, eta “putakumea” eta halakoak entzun nituen; hori errugbian pentsaezina da. Epaileari, adibidez, ezin diozu barbarik egin, eta, egitekotan, errespetuz. Ume txikiei ere hori erakusten saiatzen gara.

“**Domekan Vigoren aurka etxean jokatzen dugunez, ezin dugu barkatu**”

MugarraTTko kadeteak harrobiko lanaren isla izango dira domekan

Talde bereko kadete kopururik handiena izango du Durangoko Duetloiak



Mugarra Triatloi Taldeko kadeteak proba batean. Uxue Letamendi

> DUATLOIA Joseba Derteano Domeka honetan hamargarren aldia egingo du Gorka Uribeetxebarriaren oroimenezko Durangoko duatloiak. Aurten, lehenengoz, esprint distantziakoa izango da, orain artekoa baino laburragoa, eta horrek proba gazte maileri irekitzeko aukera eskaintzen die. Horrela, kadete

mailako duatloilariak ere parte hartu dezakete, eta kategoria horretan ez dago MugarraTT lako harrobia duen talderik. Durangoko taldeko 11 kadetek eman dute izena duatloian parte hartzeko. "Inoiz ez da talde bereko hainbeste kadete izan Euskal Herriko duatloi edo triatloi batean", zehaztu du Serafin Bere-

ziartu Mugarra Triatloi Taldeko kideak.

Esprint modalitatekoa den duatloia egiteak abantaila gehiago ere baditu: laburragoa denez, antolaketaren aldetik eramangarriagoa da, esaterako.

Urtero legez, Ezkurdin hasi eta amaituko da. Lasterketa nagusiari 10:45ean ekingo diote.

DATUAK

NOIZ: domekan, 10:45ean.
NON: Ezkurdi plazan.
DISTANTZIAK: 5 km korrika, 18.4 km bizikletan eta 2.8 km korrika.
SARIAK: Elite irabazleek 250 euro eta txapela. Eliteko bigarrenek 150 euro. Eliteko hirugarrenek 100 euro.

DUATLOI TXIKIA:

13:00etan hasiko da, adin tartetan banatuta.

Korrika osatu beharreko lehen tartean (5 km) Orozketan AHTaren zubi ingurura joan-etorria egingo dute parte-hartzaileek. Bizikletako 18 kilometroetan Goiurriatik Garaira joango dira. Korrikako azken tarte (2.8 km) Askatasun Etorbidetik egingo dute, batez ere.

Gizonetan Gorka Bizkarra, David Mosquera, Ander Okamika eta Pello Osoro daude irabazteko faboritoen artean. Emakumeetan MugarraTTko Irene Loizate durangarrak Arrate Mintegi eta Inmaculada Ruiz izan ditzake aurkari gogorrenak.

Proba nagusiaren ostean, 13:00etan, Duetloi Txikia ere egingo dute gaztetxoaren artean. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, probak hasi baino ordu erdi lehenagora arte.

ADITUAREN TXOKOA

OIHANA AZKORBEBETIA URIZAR

Mendi lasterketak



Gailurra Xtrem

Mendizaleontzat gozamen da mendian ibiltzea, baina, batzuetan, mendira joan barik ere goza daiteke mendiaz. Hala bizi izan dugu mendia azken aldian telebistako Gailurra programaren bidez, Irati Andaren eta Andoni Aizpurren eskutik. Euskal Herriko gailurrik ederrenak (Anboto, Gorbeia, Orhi, Txindoki...) erakustez gain, istorio hunkigarriak ere kontatu zizkiguten protagonistek.

Ostean, Gailurra Xtrem programa etorri da. Kasu honetan, eta formatua aldatuz, Ibon Gaztañazpiren eta Irati Andaren eskutik Euskal Herrian egiten diren zenbait mendi lasterketa ezagutzeko aukera izan dugu. Mendi maratoiak (Zegama-Aizkorri), kilometro bertikalak (Berain) eta ultra maratoiak (Bilbo-Gasteiz ultra traila) zer diren gertuagotik ezagutu dugu Gailurra Xtrem programaren bitartez. Ibonekin eta Iratirekin batera, saioetan parte hartu duten lagun boluntarioei esker (Zigor, Gotzon, Uxoa, Aitziber, Oier, Iñigo eta ni neu) orain badakigu lasterketa mota bakoitzak ze prestaketa behar duen (hidratazioa, entrenamendua, indarrak neurtzea...). Iratik eta Ibonek, majo sufrututa, ondo ikasi dute zer den mendian dena emanda aritzea.

Baina, batez ere, programako kamerariak aipatu behar! Amagoia eta konpainia. Txapela kentzeko moduko lana eta esfortzua euren!

Esperientzia polita bizi izan genuen telebistan, eta zorterik onena opa diet Andoniri, Iratiri, Iboni eta lan talde osoari etorriko diren erronkei begira.

Padelzaleak kluba, gero eta familia handiagoa

Iaz baino hiru talde gehiago dituzte ligan



Joan zen asteburuan egin zuten aurkezpeneko argazkia.

> PADELA J.D.

Padelzaleak Durango klubak aurtengo nobedadeen berri eman zuen joan zen asteburuko aurkezpenan. Bizkaiko liga txapelketan iaz baino hiru talde gehiago dituzte, zazpi guztira. Gizonetako talde berri bi eta emakumezko beste bat batu dira aurten afizionatu mailako txapelketara. Guztira, 200 kideetik gora daude klubean, eta askok ez dute elkar ezagutzen. Horregatik, klubeko kideen arteko hartu-emanak sendotzeko baliatu zuten aurkezpena.

Datorren asteko asteburuan padel saio berezi bat izango dute Geu Be elkarteak kideekin. Hainbat partidu jokatu dituzte Zamudioko azpiegituretan.

Gimnasia erritmikoa protagonista

> GIMNASIA J.D.

Bizkaiko Kimu eta haur-kategoriako gimnasta gazteek hitzordu inportantea dute zapatua honetan, Duragon. Landako kiroldegia eskolarteko txapelketako bigarren fasea hartuko du egun osoan zehar, eta tartean Uztai taldekoak egongo dira.

Bestalde, haur kategoriako banakako txapelketan Olazar-mendi klubeko Ana Fernandez Arroyabe finalerako sailkatu zen Sopelako jardunaldian.

“ARGIZ BETE ZURE SUKALDEA”

6.400 €

-tik aurrera
Etxetresna elektrikoak barne

**MARTXOAREN
25era arte**

* Hasi lasterkerak dendetan. SCHMIDT GROUP SA S. - ACS COLMAR 9 224 794 799 -
Credito argazki / Asteleku Maria BARRAL BARON / Vitorlak eta A. Pivovarov - Argazkiak ez dira komertzialak.



SCHMIDT ABADIÑO

Murcia auzoa, 2/g - 178 lokala
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO
Tel.: 946 526 195
info@schmidt-abadiano.com
www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar



JOXE AZURMENDIren obrara hurbilduz

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA · DURANGO

Landako etorbidea, 4A - Durango - Tel.: 946 030 100 - kultura@plateruena.net - www.plateruena.eus

ZILAR EGUNAK 2017

APIRILAK 2, domeka 19:00

AGINAKO ZERO BAT

ikuskitzuna · DOAN

Gaizka Amondarain + Manex Agirre
+ Jon Aranburu + Marco Moroni.

APIRILAK 5, eguaztena 19:00

JOXE AZURMENDIREN

DIMENTSIO

KOOPERATIBOA

hitzaldia · DOAN

Mondragon Unibertsitateko Lanki
ikertegiko **Aitzol Loiola** ikerlaria.

APIRILAK 6, eguena 19:00

NAZIOA, HERRIA.

KONSTANTE BAT JOXE

AZURMENDIREN OBRAN

hitzaldia · DOAN

Haritz Azurmendi Filosofian Lizentziatua
EHU-n eta doktoregaia politika zientzian.

Inmobiliariak



ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotarixuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea, balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trasteleku.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela, balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trasteleku.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalata 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B^o Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.



ETXEBITZAK SALGAI

SAN FRANZISKO



• 73 m²-ko etxebizitza 3 logelatan banatuta, bainugela, sukaldea jarrita, egongela eta balkoi. Horma-armairuak ere baditu. Gaur egun igogailua jartzen ari dira. **155.000€.** Garajea aukeran, **12.000€**-gatik.

GOIENKALEA



• Etxebizitza bizitzera sartzeko moduan. Oso eguzkitsua eta argitsua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta ganbara. **130.000€.**

KALEBARRIA



• 68 m²-ko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak berriztatua eta berogailua. **125.000€.**

SAN FAUSTO



• Etxebizitza egoera onean, bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. IGOGAILUAREKIN. **75.000€.**

IURRETA



• 68,80 m² erabilgarri dituen etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoi. Eguzkitsua eta argi askorekin. **129.000€.**

ZALDIBAR



• 73,17m² erabilgarri dituen etxea: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela bat. Oso egoera onean. Fatxada egin aurretik ordainduta geratuko zen. **130.000€**/ Neg. Garajea aukeran, **12.000€**-gatik.

www.inmoduranguesado.com



ETXEBITZAK SALGAI

MARTXOAREN 8KO



• 100m². 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin eta balkoiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara eta 2 garaje plaza. Eguzkitsua. **265.000€.**

DURANGO



• 96m². 2 logela. (3 logelako aukerarekin. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela zabala. Guztia kanpora begira. Eguzkitsua. Ganbararekin. Garajea aukeran. ESTREINATZEKO. **242.000€** (BEZa barne)

SAN AGUSTINALDE



• 100m². DENA BERRIA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela terrazarekin. Igogailuarekin. **260.000€.**

LANDAKO ETORBIDEA



• 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. **226.000€.**

DURANGO (AUKERA)



• 3 logela. Bainugela. Egongela. Berogailua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. **85.000€.**

IBAIZABAL



• APARTAMENTUA. Erdi berria. Logela bakarra. Sukaldea esekitokiarekin. Ganbara. Garajea.

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 25ean, 20:00etan, Durangoko San Agustinen

Penev

La Teta Calva antzerki talde valentziarraren emanaldia hartuko du Durangoko San Agustín kulturguneak, bihar. Klean estropezu eginda, ama hil zaio Antonio protagonistari. Amaren heriotzagatik mendekua hartuko du protagonistak.

Musika

:: DURANGO

MARTXOAREN 25ean

00:00etan, Live & Beat jaialdia, Plateruenean.

MARTXOAREN 30ean

20:00etan, Kantulagun, Plateruenean.

Antzerkia

:: BERRIZ

MARTXOAREN 24an

18:00etan, Magia lapurra, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MARTXOAREN 25ean

20:00etan, Penev, San Agustinen.

MARTXOAREN 30ean

19:00etan, Euskal musikaren benetako istorioa, San Agustinen.

:: ELORRIO

MARTXOAREN 31n

22:00etan, Medea, Arriolan.

:: ZALDIBAR

MARTXOAREN 25ean

19:30ean, Letter, Olazar frontoian.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 31n

21:00etan, Muxua, Zornotzako Aretoan.

Zinema

:: BERRIZ

MARTXOAREN 28an

19:00etan, Gure Esku Dago-ren 'Bidea' dokumentalaren emanaldia, Kultur Etxean.

M31

:: DURANGO (Bonbardaketaren 80. urteurrena)

MARTXOAREN 24an

17:00etan, Bartzelona eta Kobanegaz adiskidetasuna eta lankidetzak akordioa adosteko ekitaldi instituzionala, osoko bilkura aretoan.

18:00etan, 'Bonbardatutako hiriak' mahai-ingurua Jaume Asens (Bartzelonako alkateordea), Jon Irazabal (Gerediaga Elkarte) eta Mustafa Ebdirekin (Kobaneko ordezkaria), Kuruzesantu Museoa.

MARTXOAREN 25ean

18:00etan, Newroz eguna: antzerkia, dantzak eta gastronomia, Plateruenean.

MARTXOAREN 28an

12:00-14:00 eta 17:30-19:30, bonbardaketaren biktimen omenez instalazio parte-hartzailea, Andra Mariko elizpean.

MARTXOAREN 29an

09:30-12:30, 'Bonbardaketaren aztarnak' bideoaren emanaldia, Andra Mariko kaperan.

MARTXOAREN 30ean

11:00etan, irratia tailerra, Andra Mariko elizpean.

18:30ean, 'Picasso Durangotik Guernicara' erakusketaren irekiera, Arte eta Historia Museoa.

19:00etan, oroimen ekitaldia, Andra Marian.

MARTXOAREN 31n

08:30ean, 1. aire erasoaren alarma-hotsa jotzea, Santa Anako kanpandorrean.

12:00etan, gerra zibileko biktimei omenaldia, kanposantuan.

12:45ean, 2. aire erasoaren alarma-hotsa jotzea, Santa Anako kanpandorrean.

20:00etan, bonbardaketan hildakoei oroimen ekitaldia, Andra Mariko elizpean.

:: ELORRIO (Bonbardaketaren 80. urteurrena)

MARTXOAREN 28an

19:00etan, Jon Ander Ramosen 'Zerutik i(z)ua dator...' Durangaldeko bonbapean' berbaldia, Iturri kultur etxean.

MARTXOAREN 31n

17:00etan (euskaraz), 18:00etan (gaztelaniaz) eta 19:00etan (euskaraz), 'Elorriko bonbardaketako ondarrak' bisita gidatua.

20:00etan, oroimen ekitaldia, plazan.

Berbaldia

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 24an

20:10etan, 'Altsasutik Ziztadara', Ziztada Gunean (Luis Urrengoetxea 7).

Erakusketa

:: DURANGO

MARTXOAREN 26ra arte

San Antonio ikastetxearen 150. urteurrena, Museoa.

APIRILAREN 2ra arte

'Eskerri'-ren 'Marmoka' erakusketa, Museoa.

:: ELORRIO

APIRILAREN 21era arte

'Elorrioren kisketa zabalik emakumeon aniztasunari' erakusketa, Iturri.

:: ZORNOTZA

MARTXOAREN 31ra arte

Fermin Areitio lehiaketako lanak, Zelaietan.

Kontalaria

:: DURANGO

MARTXOAREN 25ean

12:00etan (3-5 urte) eta 12:30etan (6 urtetik gora), Dorleta Kortazarren 'Ipuinari tiraka', Bibliotekan.

:: IURRETA

MARTXOAREN 24an

17:30ean (3-4 urte) eta 18:00etan (5 urtetik gora), Saroa Bikandiren eta Peru Magdalenaren 'Ahaztu eta jolastu', Bibliotekan.

:: ZALDIBAR

MARTXOAREN 24an

17:30ean, Apaxi, Liburutegi Zaharrea.



ZINEMA

:: BERRIZ KULTUR ETXEA

La La Land

. barikua **24**: 22:00
. domeka **26**: 19:00

:: DURANGO ZUGAZA

El bar

. barikua **24**: 19:30-22:00
. zapatua **25**: 18:00-20:15-22:30
. domeka **26**: 16:30-19:15-21:30
. astelehena **27**: 18:30-21:00
. martitzena **28**: 20:00
. eguaztena **29**: 20:00

Bajo la arena

. barikua **24**: 19:30-22:00
. zapatua **25**: 18:00-22:30
. domeka **26**: 19:15-21:30
. astelehena **27**: 18:30-21:00
. martitzena **28**: 20:00
. eguaztena **29**: 20:00 (jatorrizko bertsioa)

La cura del bienestar

. barikua **24**: 22:00
. zapatua **25**: 22:30
. domeka **26**: 20:00
. astelehena **27**: 18:30-21:00
. martitzena **28**: 20:00

La bella y la bestia

. barikua **24**: 19:30
. zapatua **25**: 16:30-19:30
. domeka **26**: 16:30-17:30

Otello (opera HDn)

. eguaztena **22**: 20:00

:: ELORRIO ARRIOLA

Doña Clara

. zapatua **25**: 22:00
. domeka **26**: 20:00
. astelehena **27**: 20:00

Lego Batman

. domeka **26**: 17:00

:: ZORNOTZA ARETOA

Logan

. barikua **24**: 20:15
. zapatua **25**: 22:00
. domeka **26**: 20:00
. astelehena **27**: 20:15

La vida de Calabacín


. zapatua **25**: 17:00



Martxoaren 31n, 22:00etan, Elorriko Arriolan

Medea

Medearen istorioari buruz Andrés Limak egindako bertsioa izango dugu datorren asteburuan Durangaldean ikusgai. Martxoaren 31n Elorrioren, eta apirilaren 1ean Berrizen eskainiko dute. Aitana Sánchez-Gijón aktoreak dihardu Medearen paperean.

> ZORION AGURRAK

 zorionak@anboto.org
 eguazteneko 14:00ak arteko epea


> 11. urtebetetzean bere familiaren partez Durangaldeko neska jatorrenari. Zorionak, **Maier**.



> Atxondoko lagunaren partez, zure 29. urtegeanean, zorionak pintxe pendejo! Zapatuan kontuz sagardoagaz ta formal ibili Hernanitik! Ona izan!



> Zorionak zuri, zorionak zuri... Zorionak, mutil handi! Heldu da hainbeste itxindako eguna. Primeran pasau ta muxu handi bat etxeko danen partez!



> Zorionak, **Aiur!** Martxoaren 21ean 4 urte egin zenituen. Muxu handi bat etxekuen partez.



> Beste urte batez, 1944an jaiotakoak elkartu gara, eta desiratzen gaude hurrengo noiz egingo.



Ermodo, 11 · DURANGO
 Tel.: 946 201 663
 gozatudurango@gmail.com
 f Gozatu Gozategia

Zorionak, **Irati eta Ekain (668. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

**MIREN RODRIGUEZ****Ogia eta gatz**

Ogia ezinbestekoa da gure mahaian. Zaila egiten zaigu otordu bat batere ogirik gabe irudikatzea. Espainiako Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren arabera (MAPAMA), Espainiako Estatu-ko herritar bakoitzak 35 kg ogi jan zituen 2015ean, eta 84,79 euro gastatu zituen. Nutrizio arloko piramidean, egunero jan daitezkeen elikagaien lekuan ageri da ogia. Hala ere, Kontsumoaren, Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentzia (AECOSAN) ohartu zen, elikagai prozesatuen tartean, ogia zela herritar helduek gatz hartzeko zuten iturri nagusietakoa, egunaren buruan barneratzen zuten sodioaren %19 ematen baitzien. Ildo horretan, nazioarteko osasun erakunde baimenduek neurri batzuk berehala hartzeko gomendioa ematen dute zenbait gaixotasun kronikori aurrea hartzeko.

Ogi zuriak, batez beste, 19 gramo gatz izaten du ogi kilo bakoitzeko. Barra batek (250 g) 4,7 gramo gatz izaten du, eta horrek esan nahi du Osasunaren Mundu Erakundeak egun baterako gehienez gomendatzen duen kopurua ematen duela ia: egunean gehienez 5 gramo hartzea gomendatzen du. Hain zuzen, OMEk zenbait aholku ematen ditu maiztasun handienarekin jaten diren elikagaietan gatz murrizteko:

Helduentzat: egunean 5 gramo gatz baino gutxiago hartzea, horixe gomendatzen da (te koilarakada bat baino gutxiago).

Haurrentzat: helduentzat ezarri den gehienezko kopurua behetik doitzeko gomendatzen da 2 eta 15 urte arteko neska-mutilentzat, haiek dituzten energia beharizanen arabera.)

> BOTIKAK

BARIKUA, 24
 09:00-09:00

Campillo
 Montevideo etorb. 24 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 25
 09:00-09:00

Sagastizabal
 Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

De Diego
 Intxaurren 22. - Durango

Campillo
 Montevideo etorb. 24 - Durango

Balenciaga
 Ezkurdi plaza 8 - Durango

Bazan Diaz
 Urbarri 5 - Durango

Unamunzaga
 Muruetorre 2C - Durango

Navarro
 Arteka 6 - Durango

Larrañaga-Balentiaga
 Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

Bartolome
 Gabiola 2 - Berriz

Eguren, Isabel
 Trañabarren 15 - Abadiño

Melero, Rosa Mari
 San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

Irigoien
 Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 26
 09:00-09:00

De Diego
 Intxaurren 22. - Durango

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 27
 09:00-09:00

Balenciaga
 Ezkurdi plaza 8 - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
Isabel-Guarrotxena, Javier
 Txiki Otaegi 3 - Zornotza

MARTITZENA, 28
 09:00-09:00

Gaztelumendi
 J.A. Abasolo 2 - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
 Isabel-Guarrotxena, Javier
 Txiki Otaegi 3 - Zornotza

EGUAZTENA, 29
 09:00-09:00

Campillo
 Montevideo etorb. 24 - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
 Isabel-Guarrotxena, Javier
 Txiki Otaegi 3 - Zornotza

EGUENA, 30
 09:00-09:00

Unamunzaga
 Muruetorre 2C - Durango

09:00-22:00

Sanchez, Miren Itziar
 Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

Sarasketa, Diego
 Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, Karmele
 San Miguel 15 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria
 Isabel-Guarrotxena, Javier
 Txiki Otaegi 3 - Zornotza

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
 Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
 saltsan.com

Arrike
 Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
 Tel.: 946 201 893
 Faxe: 946 816 403

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
 Zeramiketa eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
 Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

“Probak egiten hasi ginenean ikusi genuen ez zela erraza izango”

Iurretako I. desafioa egin dute Aritz Baraiazarra eta Xabier Olaskoagak, Orozketa auzoan

> AKUILUA Aitziber Basauri
Desafioa jokatu dute Aritz Baraiazarra eta Xabier Olaskoagak Orozketan. Kana erdiko enbor bi moztu behar izan dituzte eta kilometro eta erdi korrikan egin. Azkenean, Aritzek lortu zituen jokoan zeuden 300 euroak.

Parranda giroan sortutako lehia izan da? Aritz Baraiazarra: Parranda giroan atara zen gaia, bai, baina biharamunean, lagunartean, bertutakoa, orain hile bi inguru. Arauak eta eguna adostu genituen eta aurrera!

Inoiz ibili zarete aizkoran?

Xabier Olaskoaga: Kontua ez da ez dugula inoiz aizkorarik ikusi. Inoiz eman dugu kolperen bat, baina ez horrenbeste eta halako presioagaz. Arbolaren bat edo beste bota dugu...

A.B.: Adarren bat-edo mozteko ibili dugu inoiz aizkora.

Bereziki prestatu zarete?

X.O.: Gura baino gutxiago. Entrenatzeko biok elkartzen saiatu gara, baina, bere lana edo nire ikasketak direla-eta, gaitz izan dugu. Errugbian ere jokatzan dut, eta, azkenean, ahal izan dugunean batu gara.



Apustuak ere izan dira?

A.B.: Egin dituzte, bai. Desafioaren egunaren aurretik eta egunean bertan ere bai. Bazkariak, dirua... jokatu dituzte.

Eta nor zen faborito?

A.B.: Arineketan egiteko, Xabier zen faborito. Aizkoran, ez genuen batere argi.

X.O.: Aizkoran gehiagok egin dute Aritzzen alde. Eskuak gogorragoak ditu berak. Nik lehengo 5-10 minutuetarako haustuta nituen.

Uste baino gogorragoa izan da?

A.B.: Ez genuen uste horren zaila izango zenik, baina probak egiten hasi ginenean ikusi genuen ez zela erraza izango.

X.O.: Gainera, egurra sikatzen joan ahala, gero eta zailagoa da aizkora sartzea. Hiruzpalau egunera, egurra belztu eta aizkorak errebotatu egiten zuen. Fisikoki ondo nengoen, bai egunean bertan, bai biharamunean. Erresistentzia eta muskulu aldetik ondo sentitu naiz, baina eskuak... txarto.

Aritz, zeuk poltsikoratu dituzu 300 euroak. Espero zenuen?

A.B.: Ez nuen esperantza handirik. Egurragaz ez genuen halako esperientziarik, eta ez genekien nola ibiliko ginen, ez bat, ez besteak. Arineketan bazitekeen Xabier hobeto ibiltzea. Baina, aizkoran, edozer gerta zitekeen!

Xabier, zure lanagaz pozik?

X.O.: Galtzea ez da inoren gustuko. Baina lana amaitzea

nuen helburu; bi ordu behar banituen ere, eta esku bakarria erabilia. Eskuekin nola amaitu nuen ikusita, ez nuen gutxi egin! Gogorra egin zitzaidan, baina amaitu egin nuen.

Hala ere, desafio berria bota duzu.

X.O.: Bai, inor animatzen bada... dirua berreskuratu behar da! Sanmiguel inguruan egin gura genuke. Dena den, oraindik zehazteko daude eguna eta baldintzak. Orain, ekainerako 2. desafio bat ere sortu da.

Nola izan da hori?

X.O.: Giroak berotuta sortu zen, Orozketan. Kanpotik ikusita erraza ematen du, baina... gero sustua hartuko dute, igual!

A.B.: Bai! hiru kana erdiko moztu behar dituzte, eta Gouiurriara igo eta jaitsi korrika.

Ikusmina sortu zuen zuen desafioa? Asko batu zineten?

X.O.: Bai, 50 lagun inguru batu ginen. Publizitatea ere egin izan da! Hala ere, lagunarteko kontu bat izan da, eguna ondo pasatzeko asmoagaz egin genuen. Gero bazkaria ere egin genuen. Egia esan, ez genuen hainbeste jende espero.

Halako desafioek adikzioa sortzen dute?

A.B.: Animatuko nintzateke berriz. Herri kirolak gogoko ditut, jardutea eta ikustea ere bai.

X.O.: Irabazleak diru gehiago irabazteko aukera ikusten du, eta galtzen duenak diru erreperatu gura du. Ihesik gabeko buklea da! Behintzat hemengo kirola da eta gustatzen zaigu.

LAUHORTZA

PAUL BUSTINDUI REVUELTA

Kazetaria



Otsoa dator

Sarritan irakurtzen dizkiot ipuinak nire lehengusinarene bi urte eta erdiko haurrari. Orain dela egun batzuk, ipuinekin gora eta behera pasa genuen arratsaldea. Familia osoaren eskuetatik pasatu diren liburu zaharren artean, “otsoa dator” aukeratu zuen.

Istorioan artzain zirikatzaile bat da protagonista. Egunak gogaituta eman ostean, arratsalde batean bere artaldearekin mendi gailurrera igo eta “otsoa dator, otsoa dator!” garrasika hasi zen. Herri osoa, beldurturik, laguntzeko nahian mendi gailurrera igo, eta bertan otsorik ez zela ohartu ziren, artzaina barre algaraka zebilen bitartean. Hurrengo astean txantxa bera egin zuen. Egun gutxitara, artzaina mendian zebilela, benetan agertu zen otsoa, ardiak jateko asmoz. Herritarrei garrasi egin zien arren, jendea iruzurrez asperturik zegoen eta ez zen inor laguntzera igo.

Gure Esku Dago ekimenarekin antzeko fenomeno bat gertatu da. Urteetan Euskal Herriko jendea mobilizatzen saiatu dira, herritarren partaidetza eskatzen zuten giza kateekin, eta San Mames eta Anoeta betetzeko saiakerekin. Asteburuan Hernani, Tolosaldea, Oarsoaldea, Astigarraga eta Larrabetzun erabakitze eskubi-dearen alde bozkatzera deitutako pertsonen %24.85ek baino ez zuen bozkatu. Oso zifra ahula kontuan izanda lagin modura hartutako herriak plataformak berak hautatu zituela. Tamalez, herritarrek aspertu egin dira euskal nortasunaren erakusketari hori egin behar izateaz, bestela ezin daiteke ulertu Gure Esku Dago ekimenari jendeak emandako arbuioa. Zeozer aldatu beharra dago.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com

Batillergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



Metodologiak Etekin handiko Zikloak L.H. Duala

ATE IREKIAK
Martxoak 29
Asteazkena
18:00-20:00

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!